

# EUSKERAZAINTZA

## EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

XXXII Zenbakia.

1995

Uztaila-Iraila

### AURKIBIDEA

Orr.

Esaerak.- Paulin (Barruko azalean)	
Euskal izenak Erdiaroko idazkeran.- B. Latiegi .....	1
Izkuntza, Kultur Alor Baliotsua.- Gotzon Egaña .....	15
Pixu aundiko maxiaketa.- Gotzon Egaña .....	18
H'ren auzía bukatzeko bídea.- B. Latiegi .....	21
Liburuak eta Idazleak. I. Zubiri; A. Kortajarena.- Latxaga .....	23
Urrategiz.- Anastasio Albizu .....	27
Adítza Iñazio Larramendi'ren olerkietan.- Latxaga .....	34
Oiartzun'go seme bat Zaragoza'n ikasle.- M. Oñatibia .....	41
Euskerearen ízkiak eta ikurrak.- Olazar tar Martin .....	48
Solozabal dar Paulin.- Zubikarai tar A. ....	51
Olerkari galduak. Peli Markiegi.- Arrinda tar Anes .....	54
Berbarri, izperri = neologismoak.- Zubikarai tar A. ....	57
Esaerak.- Uriguen tar Zenon (Atzeko orrialdean)	
Esaldi jatorrak.- Oñatibia tar Manu'k jasoak (Azken azalean)	

### Zuzenbideak:

**GETARIA 21 - DONOSTIA**  
**C. LARREATEGI 14 - BILBAO**

# ESAERAK

Aseak ogi ordez doaz lanera; goseak barriz lanetik atsedenera.

Ikusi eziña azurretako arra.

Erantzun samurrak baretu egiten asarrea.

Jakintsuen miran, jakituria dario.

Andiputzak ez dau nai agirikarik egin dagion.

Egun guztiak dira txarrak atsekabetuarentzat.

Gorrotoaz idi gizendua baiño, obe da maitasunez ortuaria jatea.

Nagiaren bidea arantzazko esia da.

Gizon buru bageak baztertu egiten dau bere ama.

Barri onak biztu agiten dau adorea.

Seme eroa aitaren mingarri ta amaren samingarri.

Oin ariñak bidea galtzen dau.

Emaztearen matrakak itogin azkenbagea.

Guzurtia baiño obea da txiroa.

Eguerdiko amabiak, lapikoari zabaldu begi biak.

Buru ariña, txotxiña.

Askogaz dabillana ez da ezkongai ona.

Kañaberagaz arrantzatutako arraiña baño erositakoa merkeago.

Aberats pobreak garunetan urre bitsa.

Jaten gosezto, jazten koipezto.


Paulin

## Laguntzalleak

**Gipuzkoako Aldundia**



**Eusko Jaurlaritz**



EUSKERAZAINNTZA

I.S.B.N.: 1132-1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Konponketa: Flash Composition, S.L.- Bilbao



# **EUSKAL-IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN**

**(Azken Begiraldi Orokor Bat)  
(II)**

## **Aztertutako Larrukietan Agertu Zaizkigun Doneen Izenak**

Oroituko da seguruaski, nere lan aspergarriok irakurzeko pazientzirik aski izan duan irakurlea, amaitua dutala Kukulla'ko Donemillian'en Lekaidetxeko VIII eta IX mendeko larrukien azterketa. Eta, ainzuzen, azkeneko "Euskera-zaintza"n larruki oiei emandako lenen begiraldi orrokorrean, larruki oietan agertzen dan -agian obeto esateko-, agertzen ez dan "H" izkiaz mintzatu nintzala. Eta gaurko utzi nuala, larruki oiek damaizkiguten Doneen ikerketa.

Done oien berri, urtez-urte larruki oietan agertu ala ematea pentsatu nuan aurrena, baiñan, gero, alfabet'era erabailtzea egokiagoa iduritu zait. Done bakoitzaren alboan esanen dut zer urteko dokumentuetan agertzen dan.

Larruki bat bakarra dugu VIII mendekoa. Aski zarra, bera; 759'garren urteko jorraillaren 24'ekoa. Gaur Burgosiko Errioxa'n dagoan eta orduan Autrigoitaren lurraldea zan Pedroso'ko lekaimetaz mintzatzen zaigu, eta 4 dira ematen dizkigun Done-izenak, Trinitatea aipatzeaz gaiñera: Mikel, Kepa, Paul eta Prudentzio.

Geiago dira IX mendeko larrukiak: 16. Eta amasei oietatik 4, IX mende orren lenen erdikoak. 12 berriz bigarrenekoak. Ez da arritzekoa urteen bidetik zenbat eta geiago gugana urbidu dokumentuak ere orduan da ugariagoak izatea.

\*

Kukulla'ko dokumentuak aztertzeko, 1.979'an Balentzi'n Antonio Ubieta Arteta'k argira emandako "Cartulario de San Millán de la Cogolla" erabili dit nik. Jakiña da dukumentu oiek bi "becerro" edo zekor-laruzko-liburu ezberdiñetan idatzirik gorde izan zirala mendeak-zear. Bati, "Becerro Galicano" esan oi zaio. "Becerro Gótico", berriz bestea-ri. Azkeneko au galdua da, baiñan zorionez Kukulla'ko Donemillan'en Beeko Lekaidetxean aurkitzen da XVIII

mendean egindako kopi bat. "Colección Minguela" esan oi zaio batere arrazoirik gabe kopi orri: soilki izen ortako edestilari batek gure mende onen asieran bere lanetarako erabili zualako. Lucjano Serrano'k 1930'ean argitaratu zuan "Colección Mingela" ori. Ez dirudi Mingela'ren Bilduma ortan "Bezerro" Gotiar artako dokumentu guztjak daudenik; ez onen dira beintzat bertan aurkitzen "Bezerro" Galitarrak dakarzkian batzuk.

VIII eta IX mendeko larruki auek aipatzen dituzten leku, eliz, eta lekaidetxe guztiak, Autrigoitarren lurraldean daude: Bureba'n, Burgos'ko Errioxa'n, Miranda-aldean, Baldegobi edo Gobiaran'en, Losa eta Mena izeneko arantetan, eta baita gaur-egungo Euzkadi'n ere: Gobiaran'en —esan dugun lez—, Aiala'n eta Zigoiti'n: Bizkai'ko muga-mugan.

Asi dezagun, ordea, antziñate artako gure Asabek omendu oi zituzten Doneen zerrenda:

\*\*\*

- 01 — AZISKLO: (871. Egunaren eta illaren aipurik gabe), (4-VII-¿872?)
- 02 — AGATA, (13-111-863), (871), (4-VII-¿872?).
- 03 — ANDER, (11-XI-807), (15-111-863), (29-V-873).
- 04 — ADRIAN, (4-VII-¿872?).
- 05 — BABILA, (871).
- 06 — BARTOLOME, (4-VII-¿872?).
- 06 — KAPRASIO, (856?), (1-V-867).
- 07 - ZIPRIANO, (15-111-863), (871).
- 08 — KRISTOBAL, (15-111-863), (871).
- 09 — DOROTEA, (871).
- 10 — EMETERIO ta ZELEDONIO, (15-IX-800), (11-XI-807), (¿828?), (¿856?), (871), (C.884).
- 11 — MILLAN, (18-IV-873).
- 12 — EUFEMI, (871).
- 13 — EUGENI, (871).
- 14 — FABIO, (864).
- 15 — FELIZES, (11-XI-807), (15-111-863), (864), (869), (871), (4-VII-¿872?), (18-IV-873).
- 16 — FELIX NOLATARRA, (4-VII-872).
- 17 — FRUKTUOSO, (871).
- 18 — IAKOBA (864) + (871)
- 19 — ION, (15-111-863), (15-III-863), (864), (1-V-867), (4-VII-¿872?) (072?), (4-VII-¿872?).
- 20 — ILDEFONSO, (871).
- 21 — IULIAÑ eta BASELISA, (864), (4-VII-¿872?), (4-VII-(¿872?).
- 22 — IUSTA eta RUFINA, (864),+ (4-VII-¿872?) + (4-VII-(¿872?) +
- 23 — IUSTO, (871), (¿872?).
- 24 — IUSTO eta PASTOR, (1-V-867).
- 25 — KEPa, (4-VII-(¿872?), (¿872?).
- 26 — KEPa eta PAUL, (24-IV-759), (864).
- 27 — LORENTZO, (29-V-873).
- 26 — MAKABETARRAK, (871).
- 28 — MAMES, (1-V-867), (871), (18-IV-873), (29-V-873).
- 29 — MIREN, (15-111-863), (864), (869), (871), (4-VII-¿872?), (4-VII-¿872?), (29-V-873).

- 30 — MARTIN, (15-X-800), (864), (871), (4-VII-¿872?), (4-VII-¿872?), (4-VII-¿87 ?), (¿872?), (18-IV-873), (29-V-873), (4-VII-¿872?).
- 31 — MIKEL, (24-IV-759), (15-111-863), (864), (869), (29-V-873).
- 33 — PELAJIO, (15-111-863).
- 34 — PRUDEN LIO, (24-IV-759).
- 35 — KIRIKO, (4-VII-(¿872?).
- 36 — ERROMAN, (15-IX-800), (864), (871), (4-VII-(¿872?), (4-VII-¿875?).
- 37 — SALBATORE, (871).
- 38 — GURUTZE DONEA, (15-111-863, (869), (871).
- 39 — SATURNINO, (15-111-863), (84-VII-¿872?).
- 40 — ESTEBAN, (15-IX-800), (¿872?), (18-IV-873).
- 41 — TEODOSIA, (18-VII-873).
- 42 — BIXENTE, (864), (871).
- 43 — BIXENTE eta LETO, (864), (4-VII-¿872?), (4-VII-(¿872?).

Orra or euskaldun autrigoitarrek VIII eta IX mendeetan omentzen zituzten Doneak. Oiek izan ziran Jainkoaren aurrean gura Asaba aien arartekoak.

Guri, orain, Euskalerrri zar artara kulturaren aizeek nondik jotzen zuten jakiteko balioko digute. Baiñan gogoan ongj gorde bear dugun gauza da Euskalerrri Zar eta Zabal aren baztarrik sarkaldekoienean zegoala Autrigonia, eta an bizi ziran euskaldun aiek, eguerdiko eguzkiari aurpegi eman ez Arabitar musulmanekin negua amaitu bezain laister ia urtero borrokan ibilli bear izaten zutela, eta eguzkiaren eguneko azkenprintzei begira berriz, odolez eta oldozkeraz Bisigotak ziran Asturitar kristauen aurka ere guduan majz aski.

Oka-Mendietatik aruntz oro zan IX mendean musulmana: "Al cumplirse el siglo de la conquista, la inmensa mayoría de la población hispanovisigótica había abrazado el islam" (J. M. Ruiz Asencio: "Diccionario de Historia de la Iglesia Española", III, 1747)

Gelditzen ziran oraindik an kristau taldetxo batzuk, urietan batez ere. "Mozarabes" esan oi zaie, "mozarab" itzak arabieraz "arabitarre" esan nai ornen dualako. Gutxiengo nimiño bat besterik ez ziran: ugartetxo kristauak, zero itxaso musulman bihurturik zegoan Españi artan, baiñan kultura aundiakoak, sinispen zintzokoak eta kristau-barne-bizitza sendokoak. Ez zuten musulmanen artean eskubide askorik izan, bai ordea beren sinispidea gorde aal izatekoa. Ala izan zan ain bizkorra aien artean lekaidetza. "Abundaron las comunidades monásticas en la España musulmana. En los alrededores de Córdoba ilegaron a existir más de 15 monasterios. Algunos gozaron de gran fama entre los musulmanes" (id. ib). Orrela sortu aal izan zuten, mozarabitar aiek, beren liturgi eder oparoa.

Sarkaldean, Asturietako Bisigotiar kristauekin egiten zuten muga —¿nun?-Autrigoni'ko euskaldunek. Ez, noski muga paketsua. Asturitarrek, Toledo'ko Bisigoten endakoak ziralarik, aien oiturak gorde zituzten bezala, era ber-bearean gorde bait zuten aien euskaldunen aurkako gorrotoa.

Oka-Mendietako muga, eta Bureba'n bertan urtero arabitar musulmanekin borrokan, eta sarkaldean Asturietako Bisigotiar kristauekin pake aundirik ez..., izan zan noski nolabaitekoa euskaldun Autrigoitarren biziera.

Kristauak ote ziran Autrigoni'ko euskaldun aiek? Bai. Ezpairik gabe, bai. Argi uzten digute ori IX mendeko larruki auek eta VIII'eko bakar arek. Gaiñera, larruki oiek, Autrigoni'ko euskaldunen kristautasuna bizitzeko eraren berri ere badamaigute. Eta au da, ainzuzen, eman dezaiguketzen ziturik ederrena.

Kristausuna bizitzeko era ori, ¿nondik ote zuten etorria? Egoaldeko mozarabeengandik? Azkarregi da IX mendea, eta zer esanik ez VIIIa, Autrigoni'ko kristaukera aiengandik etorria izateko. Ez zegoan oraindik mozarabitarren liturgia beraien artean ero erabat tajutua. Ezta, ondorioz, liturgi artako donetegia ere: "Para encontrar calendarios propiamente hispanos se ha de pasar a los siglos X y XI" (J. Vives, "Dic. Hist. Igl. Esp." II, 1325). Gure Dokumentuak berriz leenagokoak dira: VIII eta IX mendekoak.

Gaiñera, kalendarario oietatik garrantzitsuenak, non eta Euskalerra Zarrean izan ziran eratuak: Bat, Albelda (Arbelda?)'ko lekaidetxean; X mendeko "Calendarium Vigilium" esan oi zaiona. Bestea, Kukulla'ko Donemilian'en Lekaidetxean, 994'ean. Beste lau Kukulla'ko lekaidetxearekin arremen aundiak izan zituan Silosikoan, 1039, 1057, 2171 eta 2169'an. (J. M. Ruiz Ascencio, "Dic. His. Igl. Esp." III, 1747).

Gaiñera, mozarabeak ere Bisigotiarrek ziran-da, ez dirudi garai artako euskaldunekin arremen aundirik izan zutenik.

Ñondik, bá, etorri ote zitzairen Autrigotarrei VIII eta IX mendeetan erabili zuten kristautasuna bizitzeko era? Toledo'ko Bisigotiarrengandik? Asturietakoengandik? Iparraldeko frankiarrengandik? Araba'n, Arrazua-Ubarrundi'ko Aldayeta'n, Karistiarren lurrian, baiña Autrigoni'ko mugatik ez urruti aurkitu dan illobi-kopuru txit ugariak adierazten digunez, euskaldunak VI eta VII mendeetan eta VIII'aren astapenean egoaldeko jendeekin baiña Auñamendiz aruntzko iparraldekoekin askoz arremen geiago izan zuten. Illobitegi ortan orain arte argitaratu diran obietan —eta beste asko dira oraindik lurpean eta Zadorra'ren aintzirako urpean jarraitzen dutenak—, ez da Bisigota izan daitekeanik ezer aurkitu.

Arrazoi aundiz idatzi du illobitegi orren azterketen zuzendari dan A. Azkarate Garay-Olaun'ek: Aldayeta'ko obi oiek eta Zadorra'ren aintzirako uren azpian gelditzen diran beste "eundakek", "reflejan unas relaciones entre ambos lados de los Pirineos muy superiores a los que ha admitido tradicionalmente la historiografía española y a las que han imaginado, incluso, autores tan cualificados en este tema como E. James o M. Rouche".

Dana da Aldayeta'n iparraldetarra; akitaniarra bereiziki. Eta dana da iparraldekoa, Ñaparroa'ko Iruñatik ez urruti, Buzaga'n agertu-berria dan illobitegian ere. Guri ordea, emen, Aldayeta zaigu bereiziki aipagarria, gure larrukiok damaizkiguten lurralde batzuetatik oso urbil aurkitzen dalako. Ain zuzen larruki auetako bat, danetan garrantzitsuena, Okoizta (orain Akosta)'ko lekaidetxe arburuzkoa da. Akosta, gaurgaur arte euskalduna izan dan Zigoiti'n dago. Txit urbil, noski, berak ere ia orain arte euskaldun iraun duan Aldayeta'ko lurraldetik.

Ikus nola amaitzen duan Azkarate'k bere lan ederra: "Siendo, como fueron, los vascones 'la fer de lance' del poder aquitano, ¿no resulta elocuente que sea tan alto el número de armas recuperado (en Aldayeta), y que los hallazgos a los que nos referimos se ubiquen precisamente en la Vasconia peninsular, y que todo ello, sin embargo, esté armónicamente integrado en un contexto cultural que nos remite de manera inequívoca al norte de los Pirineos"? (ib. 176).

Nondik etorri ote zitzairen bá Autrigoni'ko euskaldunak, VIII eta IX mendeetako larruki auetan ain bizkorra agertzen duten kristaukera sendo garbia?

Orixe da, ainzuzen, larruki oiek damaizkiguten Doneei galdetu nai dieguna.

So dagoigun berriro eman-berri dugun done-zerrendari. Done oiek, ia da-

nak, Bisigotiarren santutegikoak dira. Baiñan oietako askok ez digute gure galdeari erantzuteko balio. Eliz Osoko Liturgian gurtzen ziran Doneak bait dira!

—Ala, adibidez, zerrendako Apostoluak: Ander, Bartolome, Jakoba, Jon, Paul eta Kepa. Oiek ez dira Bisigotiarren liturgiko Doneak! Ezta Jon Done Batailaria ere!

Bi larrukitan agertzean zaigu Jakoba edo SANTIAGO Donearen izena, bi leku ezberdiñetan omendua. Agertu ere, aski goiz agertzen zaigu gaiñera: IX mende onen 864'ean eta 871'an. Orrek, baliozko zerbait agertu nai digu. Konpostela'rako erromesketak baiño leenagokoa dala Euskalerrian Santiago'renganako jainera.

—Berdin, naiz Apostuluak izan ez, oso zarrak eta txit ezagunak ziralako, Zipriano, Kristobal, Lorentzo, Martin, Esteban, Bixente, Ageda eta Saturnino. Gauza bera esan daiteke Kapadozi'ko Donemames martiriari'az ere; izugarriko arrakasta izan bai zuan Sarkaldeko kristaudian ere, erdiaro garaieko denboretan, agian bere aberkide Basilio ta Gregorio "Aita Kapadoziarrek" aren omenez egindako sermoiei eskerrak.

—Zer esanik ez, Salvatore Deunari, Gurutze Doneari, Mikel Goiaingeruari eta Miren Josu'ren Ama Neskutsari dagokienez. Auek danak Eliz Guztiak goresten zituan Doneak bait dira.

Zerbait esan nai nuke Done oietako batzuei-buruz:

Miren Neskutsa 7 larrukitan agertzen zaigu:

863'ko epaillaren 15'ekoan: "Trado corpus et animam meam ad atrium Sancti Felicis... et Santa Maria" (sic): "Nere burua, gorputz eta anima, Donefelices eta Miren Donearen Lekaidetxeari damaiot".

864'ko batean: "Facio donationem ad atrium Sanctissimi Felicis et ... Sancte Marie" (sic): "Emaizta au dagiot Felices txit Deunaren ... eta Miren Donearen lekaidetxeari".

869 beste batean: "Dono ad Sancti Felicis ... et Sancta Maria": "Felices eta Miren Donearen (lekaidetxeari) damaiot".

871'koan: "Dedimus Sancta Maria de Foce de Arganzone": "Eman diogu Argantzongo arrarte-bideko Miren Donearen elizari..." (Gaur, "foz" edo arrarte orri, "Las Conchas de Arganzón" esan oi zaio. Gazteizitik egoaldera 16 kilometrorra dago. Arrarte ori-zear, la bata bestearen gaiñean, Gaztela'rako kamio zabala, Zadorra ibaia, eta RENFE'ren burnibidea).

872'koak daitezkean Uztaillaren 4'ekoak, iru larruki ditugu. Oietako batean bi aldiz dagerkigu Miren Donearen izena:

Aurrenekoan: "Sancta Marja de Govia cum suas hereditates": "Gobia'ko Miren Donea bere ontasun guztiekin".

Bigarrean: "VI eras salsas in Sancta Maria de Rusion": "6 gatza-larrain Rusionigo Miren Donean". Emen, "Miren Donea", toki-;zen bezala datorkigu.

873'ko orrillaren 29'koan: "Sancta Maria de Fresnu": "Fresnu'ko (¿Lizarra'ko?) Miren Donea". Emen, berriz, "Miren Donea" lekaidetxe baten izena da.

Miren Doneaz esan dugun gauza bera esan bear dugu Martiri Makabetar, Mikel Goiaingeru eta Gurutze ta Salvatore Doneetaz: Eliz Orokorraren doneak dirala. Makabetarrak gaiñera Galietan omenduagoak izan ziran Ispanietan baiño. IV mendean bazuten Lyon'en eliz bikain bat: Onorlo inperatore zala, (395-423) Justo Donearen izena artu zuan Basilika, baiña len, ordura arte, Makabetarrei opaldurik egon zana: "précédément dédié aux Macchabées". Arriturik aipatzen ditu VI mendean Turena'ko Gregorio'k, Basilika artako atari aundi bikaiñak eta aien eusle ziran artzurizko zutabe zenbat'eziañak": "dont on

nous décrit les immenses portiques formés d'innombrables colonnes de marbre".

Ez dirudi, beraz, Anai Martiri Makabetarren eraspina Toledo'ko bisigotiarrengandik etorri zitzaigunik. Alderantziz, iparraldetikoa izan genduala ematen du.

Ezin izan dut Makabetarren izenik Bisigoten Donetegietan aurkitu. Gure larrukiotako batean Itun Zarreko anai martiri aien gorpuzkiñak aipatzen dira. Ainzuzen Mikel Goiaingeruaren erlikiak ere aipatzen dira gure larruki auetan. VIII mendeko artan adibidez; 759'n, VIII mendearen erdi-erdian, Tiron ibaiaren ibarrean, gaur Pedroso esaten zaion errian aurkitzen zan lekaimetxeko lekaima aiek, beren eliza "ex reliquias almi Dei arcangeli Micaeli et sanctorum apostolorum Petri et Pauli et sancti Prudencii", ots, "Mikel Jaïnkoaren Goiaingeru ospetsuaren, Kepa ta Paul Apostolu Doneen eta Prudetzio Donearen erliekiz" sagaraturik zeukatela, esaten bait digute.

¿Mikel Goiaingeruaren erliki ura zer izan zitekean? ¿Bere egaletako luma-  
ren bat agian? Ez zaitetz isekalari agertu. Lekaima euskaldun aiek ez ziran zuk  
uste bezain ifñoxoak-eta. Mikel nonbait agertu zala entzunik zeuden ordea  
seguruaski, eta Agerpen ura gertatu ornen zan lekuko zerbait, —arkaitz baten  
puxka bat?, elorri baten arbaztatxo bat? edo beste orrelako gauzatxoren  
bat— berenganatua zuten-da, orri esaten zioten "reliquia Almi Dei arcangeli  
Micaeli".

Zillegi bezait galde bat: Non gertatu ote zan Mikel Deunaren agerkunde  
zalako ura? Euskaldunek birbiziko uste on aundia izan diote Aralar Mendiko  
arzuloan Teodosio Goñi'ko Zalduna gaizkatzeko Mikel Doneak egin ornen  
zuan agerketa ospetsu ari. Teodosio'ren kondaira batzuek VIII mendearen  
asieran, Bitiza errege bisigotiarren garaiean (702-709), ipintzen dute Ara-  
lar'ko Miken Deunaren agerkundea. Bi edo iru urte beranduxeago beste ba-  
tzuek: Arabitarrak Españi'ra sartu ziran aroan. Arabitarrak, 711'ean sartu  
ziran Españi'ra. Gure larruki au berriz 759'koa da, ots, 48 urte geroagokoa.  
Aralariko agertaldi ura ote zeukaten lekaima aiek gogoan eta Aralariko ar-  
tzulo artako arri-koxkor bati esaten ote zioten Mikel Goiaingeru Deunaren  
erlikia?

Danadala, 873'ko orrillaren 29'ko larrukian ere agertzen zaizkigu Mikel  
Goiaingeruaren erlikiak. Aralariko DONEMIKEL "in Excelsis"en oroipena ote  
zan eun urte geroago ere Autrigoitar euskaldunen gogoan jarraitzen zuana?

Ordurako gure Asabek Mikel Deunari eraspen aundja ziotelako adigarri  
dugu beintzat, Goiaingeru aren izena VIII eta IX mendeetako 17 larruki auetatik  
bostetan alako eraspen aundiz aipaturik agertzea.

Done oiek kenduta ere, gelditzen zaigu oraindik Done-sail aski luze bat.  
Baiña, oietatik ere, batzuk kendu bearrak ditugu. Eta, aurren-aurrena, Pru-  
dentzio kalagurritarrak bere olerkietan abestu zituanak.

Itz bi esan bearko ditut Prudentzio onen aurkezpena egiteko. Euskotarra  
zan. Kalagurri'n, gaurko Kalaorra'n, sendi kristau baten seme, IV mendean  
jaioa. "Baskoia" beraz, Kalagurri izan bait zan erromatekoan, Baskoien uririk  
nagusiena. Euskotarra izateaz gaiñera, euskalduna ere bai ote zan? Baleike. IV  
mende artan, Oka Mendietatik Mediterran itxasoraiño insten bait zan Euskera,  
eta ez aztu Baskoiak ere, gaurko Naparrak, Ibero Ibaia-beera Jalon ibaieraiño  
insten zirala. Kristau zintzoa jzan zan beintzat Prudentzio, eta lenen-lenen mai-  
llako olerkaria. Garai artan onena. Bai beintzat olerkari kristauen artean. Nola'-



ko Paulino Done bordeletarra eta onen maixu izandako Ausonio bera baiño obea.

405'an argitaratu zituan bere olerkiak. Danetan ezagutuena "Peristephanon" edo "Koroiaketa" izenekoa.

Izugarrja izan zan Prudentzio'ren itzala Kristaudiaren Sarkalde osoan, ots, latiñez itzegiten zuan lurralde guzian. Orregaitik, Bisigotak VI mendean Galjetatik Ispanjetara etorri aurretik ere, naitanaiez ziran ongi ezagunak Prudentzio euskotarraren olerkiak bere aberria zan Euskalerrj kristauean. Ala, Prudentzio'k goraiatzuten dituan Done oiek, naiz Bisigotiarren donetegian egon, .ez zjran Euskalerrira Españi'tik etorri. Izatekotan Euskalerritik joango ziran Españi'ra.

Ona, gure zerrendako Doneetatik Peristephanon poeman aurki dezazkegunak:

\* \* \*

AZISKLO kordobatarra, Prudentzio'k, Kristaudiko urj aundietako martiriak goratzerakoan aipatua (Per. 4.18).

ZIPRIANO edo ZIPiRIO. Berdin au ere. Azisklo aipatzen duan aapaldi berea, gaiñera. (Per. 4.20).

KAPRASIO. Garona ibaiaren ertzean aurkitzen dan Agino'ko martiria. Gaur egun Agen esaten diote frantziarrek, erromatarrek —, Agiño agoskatzeko?— Aginno idatzi zuten unjarj.

EMETERIO ta ZELEDONIO. Olerki oso bat eskeiñi zien aien errikide Prudentzio'k bi martin auei: "Peristephanon"eko 4'garrena.

FELIX Geronatarra. Au ere Azisklo bezala, olerki bereko aapaldi polit batean aipatua (Per. 4, 29 eta 155)

FRUCTUOSO, III mendean Tarragona'ko gotzai jzan zan oni olerki oso bat opaldu zion. Poemaren VI'a.

JUSTO eta PASTOR, Complutum, orain Alcalá de Henares deritzan uriko martiriak. IV olerkiko 41'garren aapaldian abesten ditu gure olerkariak (Per. 4).

LORENTZO, agian jaiotzez eta baita amaren aldetik beintzat odolez ere uezsitarra jzan omen zan Diakono santu oni oso-osorik Peristephanon poemaren II olerkia eskeiñi zion Prudentzio'k.

ERROMAN. Poemaren IX olerki osoa idatzi zuan Prudentzio'k Done onentzako.

ESTEBAN. Izan zuan zer abesturik Prudentzio'k Kristaudiko lenen martinj onentzat ere (Per. II, 371).

BIXENTE. Diakono martiri onentzat poema artako V olerki osoa idatzi zuan Prudentzio'k. Ueszitarra zan Donebixente, euskotarra beraz eta baita euskalduna ere seguruaski. Ueska urj artan, XIV mendean ere, jitzegiten bait zan euskeraz!

Ez. Ez noski. Ez. Done oiek ez ziran Bisigotjarren liturgitj Euskalerrira etorri. Alderantziz, Euskalerritik joanik sartu ziran Bisigoten liturgira.

\* \* \*

Beste zerbait esan bearrik ere badut Done oiei-buruz: la danak Euskalerrri Zar eta Zabala arekin zer-ikusirik izandakoak dirala:

Bixente, uezsitarra zan odolez, eta agian baita izkuntzaz ere. Donebalerio Zalduba'ko gotzaiak, berak "defectum linguae" edo "izketarako eragozpen" bat zualako sagaratu zuan diakono gure Bixente. "Defectum linguae" orj, ez zetorkion seguruaski españiarrek na; luketen bezala, mingain totelekoa izate-tik. III menda artan, ots, Gotzai baten eginkizunik garrantzitsuena erriari maixu

lez itzegitea zan aro artan, totela izan ba'litz Balerio, jez bait zan Zalduba bezalako urj nagusi bateko gotzai-aulkira jasoa izango!

Zaragoza'k, jZalduba'k!, III mendearen bigarren erdian, gain-gaiñean zeukan oraindik euskera. Sarkaldean 25 kilometrora zeuzkan Baskoiak Alagon'en eta Jalon ibaiaren ibarretan. Iparraldean, berriz, ez askoz urrutiago Ueszitarrak Alkubierre mendien maldetan.

Euskaldun asko zuan bezaz Balerio Zalduba'ko gotzai Doneak bere elizbarrutiaren barruan. Eta, bere artaldeko ardi euskaldun aiei ebangeljo aldarrikatzeko bere "defectum linguae" ura, ots euskerarik ez jakitea, eragozpen menderakaitza gertatzen zitzaielako sagaratu zuan diakono Bixente euskaldun ueszitarra, adiskide zituan gurasoen seme eta bere usteon osokoa zan diakono berri onen bidez Kristo'ren dotriña bere elizbarruti txit zabaleko euskaldunen artean gero ta geiago ta sakonago zabaldu zedin.

Ederki bete zuan noski Bixente'k bere eginkizuna. Orixe adierazten digula bait dirudi euskaldunek antziñatik izan dioten eraspén aundiak. Batez ere iparraldekoek. Gaur arte gorde bait diote gure Euzkadi onen iparraldean, antziñako euskaldunek bereiziki eskertu nai zituzten Doneei ezarri oje zieten oorezko izengoitia, eta zintzo gorde ere, asko maite zituztenentzat asmatutako izenaldaketa goxoa: Orrela IONDONI BIXINTXO esan oje zaio an ezтики, Balentzi'n martiri jI zan Zalduba'ko Diakono Ueszitarrari.

Gauza bera egin zioten gure asabek Fructuoso Doneari. III mendean, Fructuoso, Tarragona'ko Goigotzala zan. Tarragona'ko "Metropolita", antziñate artako izkeran. Bere "eliz-probintze"aren barruan zeukan itxasotik itxasora ego Euskalerrri Zar guztia. Naitanaiez, ebangelizaketa-lan aundia egiña izanen zan euskaldunen artean. Oroipen ederra gorde bait diote euskaldunek, oorezko izengoitia eman ez eta bere izena kuttunki laburtuz; IONDONI MURTUX esaten diote bá oraindik gure iparraldekoek.

Orixe bera egin zioten Tolosa akitaniarreko Donesaturnino'ri. londoni Murtux bezala, III mendekoa izan zan Saturnino, eta londoni Murtux Tarragona'n bezala, Tolosa'n goigotzaia, eta, Tolosa'ko bere gotzaiaulkitik, itxasotik itxasora, Euskalerrri Zar Zabala aren iparralde osoko metropolita. Ta, orregaitik, seguruaski, euskaldunen artean lan ederrik aski egiña.

Kondairek, Iruña'ra etorrita, an, Baskoien artean, Donefermiñ'en gurasoak kristautu zituala dioskute.

Orra bá: Donefermiñ'en kondaira, mamirik gabeko olertikeri utsa iduritzen zaidan bezala, naiz edestia izatera iritxi ez, mami geiagokoa iduritzen zait Donesaturnino erdi-euskalduna zan Tolosa'tik Akitani euskalduna-zear, Auñamendia igarota, Iruña euskaldunera etorri zalako kondaira.

Fernando "Katolikoak" Naparroa indarrez zanpatu zuan arte, Naparroa'ko Baskoiek iparraldeko Erriekin askoz arremán geiago izan bait zuten egoaldekoekin baiño. Egoaldea etsaia zuten. Beti ere noiz irentsiko zai zeukaten erentsugea, azkenean Fernando "katolikoak" gezurra ta gezurraren gaiñean jdarberia erabiliz, erabat eta jbetirako? irentsi aal izan zjtuán arte.

Eskertsu gelditu zitzaizkion beintzat euskaldunak Tolosa'ko Metropolitari. Gaur bertan, oraindik, IONDONI XATORDI esaten bait diote.

Martin Donea dugu, euskaldunek bearbada geien maite izan duten Donea. Turena'n lekaide, eta gero bertako gotzai, mixiolari aundia izan zan Donemartin, bai bere ekitez, eta baita mixioketara bidali oi zituan bere lekaideen bitartez ere. Eta Turena, Euskalerrri Zar eta edatsu artatik ain urrun ez zegoalako, iritxi bide zan bere besoa Euskal-lurralderaiño.

Ori, beintzat adierazten digutela dirudi, euskaldunek ematen dioten izenak: IONDONI MARTTI, eta Euskalerra osoan bere goratarrez jaso dizkioten eundaka ta eundaka eliz, baseliz, eta eliz-barrunbeetako aldareek. Gure 17 larruki auetatik ere 10'ek aipatzen dute Martiñ'en izena, eta baita bein baiño geiagotan ere batzuek.

Iperbole aundiegirik egiteke esan dezakegu IX mendeko Autrigoni arek bere zoko guztietan londoni Martti'ren izeneko eliz, baseliz edo lekaidetxe bat bazuala.

Eta londoni Martti'renganako eraspén ori ez zuten Konpostela'rako erromesek ekarri. Erromesketa ura, geroagokoa izan zan: batez ere XI ta XII garren nendetan izan zuan bere aro gurena. Larruki auek, ordea, VIII eta IX mendeetakoak dira.

Arrera kuttun berdiña izan zuan Euskalerrian, Kristaudiko Protomartir edo Lenen Martiriak ere. Agian orretxegaitik eman bai zaio, Euskaldunek maitasun berezi baten adigarria izan duten deikera: IONDONI EXTEBE.

Bost oiek bakarrik dira Euskaldunen artean orrelako omenketa biotzkoa merezi izan duten Doneak. Eta, ez. Ez, noski. Ez. Naiz Bisigoten Donetegan agertu, Done oien jzenak ez ziran gure larrukiotan ikusi ditugun errietara Bisigotiarrengandik etorri. Emen zueden seguruaski, Bisigotiarrak gure mugetara urbildu baiño len, eta geienak, adibidez londoni Bixintxo eta londoni Murtux izan ezik, iparraldetik etorriak.

Orrela, Done oien iparraldetiko etorrerak, VI eta VIII mendeetako Bazeta naparrak eta Aldayeta arabarrak erakusten digutena sendotzera eldu zaigula ematen du: Bisigotiarren aroan, Euskaldunen arremanak egoaldearekin ez baiña iparraldearekin askoz eta askoz sendoagoak izan zirala: Egoa, gureganako kultur-bidea ez baiña, gure aurkarako borrokabide garratza izan zala.

Bada beste Done bat ere, III mendekoa, Euskalerrian, "londoni" aiek bezala, era senidetsu berdiñez artua izan zana, eta gure bi larrukitan agertzen dana: Zipriano Kartago'ko goigotzaia: Bardulitarrek, ez "londoni" ez "Done" aurreizenik gabe, xumeki, ZIPIRIO esan ziotena, eta, orregaitik, Lekuona'tar Imanol'en iritziz, emen, aipatu ditugun beste oiek baiño agian leenago ezagutua izan zana, edo, beintzat, beste oiek baiño deikera zaarragoa gorde duana.

Bai bait du oraindik Gipuzkoa'ko Tolosa'ren alboan baselizatxo baten aztarna, eta bertan omendutako Doneari, beste izengoitirik gabe soilki Zipirio esaten bait zaio. Zergaitik ote, Kartago'ko Zipriano ain urrutikoa izanik? Egia da III mendean Sarkalde guztian itzal aundia izan zuala eta bere gutunen bidez lan ederra ta garrantzitsua egin zuala Galietan eta Ispanietan, baiñan Euskalerrian zerbait egin zuanik ez dakigu.

Alatagutziz, esanik utzi dugu Zipirio ez dala Bisigotiarren Donea, kristaudi osokoa baizik, eta beste iñon baiño geiago, ez dakigu zergaitik, euskaldun bardulitarren artean zaletasun goxo bereiziz maitatua.

Baditugu zerrendan beste done batzuk ere, idazlan onen bidez lortu nai dugun elburarako baliorik gabeak diralarik zerrenda ortatik kendu bear ditugunak: Euskalerra zar artan jaiotakoak edo Euskalerrian ildakoak ainzuzen, beroien ezauntza ere, ez bait zitzaigun Bisigotiarrengandik iritxi:

EMETERIO ta ZELEDONIO. III mendearen azken aldera Dezio'k gudaroztearen barruan kristauen aurka piztutako zigorketakoan gudaroztetik jaurtiak eta Kalagurri'n martiri eraillak. Baskoiak ote ziran? Baietz dirudj. Izugarria izan bait zan kalagurritarrengandik jaso zuten eraspéna. Esan dugu Prudentzio'k abes-

tu zituala, baiñan aren abesketarik gabe ere, naikoa genduke bere erritarren aldetiko eraspen miresgarri ori, berenganako eraspena Bisigotiarrengandik ez zitzaigula etorri jakiteko.

FELIZES. Bi Done izan daitezke Autrigoni'ko larruki auek izen orren bidez adierazi dezaizkigutenak: bat Prudentzio'k abestu zuan Gerona'ko martiri ura; euskalduna agian; ura il zutenean, naiz bearbada Gerona bera un elebiduna izan, aren lurraldeko jendeak ugari, agian, euskaldunak izango bait ziran oraindik.

Bestea, ziurki euskalduna. Berondarra, edo Autrigoitarra. Bilibio malkarren buruan bakartasunean lekaide bizitua, eta an Donemillan'en lekaidetza-irakasle izana. San FELIZES esaten diote oraindik errioxarrek eta Bilibio-muiñoan gordetzen diote bere baselizatxo polita.

Aurkezpen au dagio "Bibliotheca Sanctorum" italiarrak: "Felice, eremita a Bilibio, vjisse (bizitu zan) nel secolo V, fu maestro spirituale de S. Emiliano (in Spagna S. Mjllán). S. Braulio vescovo di Saragossa le dice (esaten dio) "vir sanctissimus".

BiXENTE ta LETO. Bixente Zalduba'ko djakonoaz gaiñera beste Donebixente bat badaimagute Doneleto'rekin batera gure larruki auetako bik: "Bixente eta Leto": beti alkarrekin aipatzen djan Doneak. Kondairako gizakumeak, edestikoak baiño geiago. Ezer gutxi dakigu beraiei-buruz. Ez dakigu ziur gizakume auek ezur eta mamizkoak izan ziran ere. Baietz dirudi. Baiñan nonbaitekoak izatekotan Euskalerrikoak izan zirala, ori beintzat badakigu. Bearnokoak, seguruaski.

NOLA'ko PAULINO: Bordeletarra, jaiotzez. Beraz, arresien barruan euskaldun ugari izanen zuan urikoa. Odolez, italiarra. Eta oldozkeraz, oso-osoa erromatarra. Sendi arras aberats baten semea, senatore izan ondorean, dana utzita, Teresia bere emaztearekin, lekaidetzara jo zuan. Bartzelona'n aurrena. Napoles uriburu duan Kanpania'ko Nola urian gero. Uri ortara joan bait zan, an omentzaen zan Donefelix martiriaganako eraspenak eramanda. Eta bertako gotzai izanez amaitu zuan bizia. Olerkari bezala, aski baldar mintzatu zitzaigun Euskalerriaz.

Ez noski, ez. Done guzti oien ezauntza ez zan onera Bisigotiarrengandik etorri. Izatekotan, emendik joango zan Bisigotiarrengana.

Gure zerrendan izendatu ditugun Doneetatik 11 gelditzen zaizkigu oraindik aztertzeke. Eta, Bisigotiarren santutegian agertzen diranlako, eta, dakigunez beintzat Euskalerriarekin zer-ikusirik izan ez zutelako, merezi dute ikerketa bereizia. Ona Done oien izenak:

ADRIAN: 14 ospatzen ditu Elizak izen ortakoak. Danak Sortaldetarrak, siziliarbat izan ezik.

BABILA: Teofilo'rekin batera aipatzen dan Donea. Zesarea'ko martiriak biak.

DOROTEA: 2 Done. Ejito'ko Aleksandri'koak biak.

EUGENI: 6. Bat Kordoba'koa, baiñan X mendean bizitu zana. Beraz, VIII eta IX mendekoak diran gure larruki auetarako balio ez duana. Beste bat erromatekoan Arles'en martiri erailla izan zana. Aries, ez zegoan Euskalerrri Zar eta Zabal artatik oso-osoa urruti, eta erromatarrek bertako jendeari entzun zioten eraz, Arelate zuan izena. Nik ez dut esango izen ori, Arelate, euskalduna danik, baiñan euskal-doiñu nabarmeneko dala, bai.

EUFEMI: 9: Auetatik ere, bat, Arelate edo Arlesikoa. Bada españiar bat ere;

Orentse'ko neskato artzai bat. Baiñan XI mendekoa. Gure larrukiok baiño bi mendez geroagokoa.

FABIO. 3 martiri, izen ontakoak. Ezagunena, "Vexiliferus" edo "Alferez" mauritar bat.

ERROMAN: 23 dira izen ontako Doneak; bat, ordea —guri geienik ajola zai-guna—, erromatean Gerona'ko martir izana. Beraz, euskalduna izan zitekeana.

PELAJIO, espainiarren Pelayo: Iru dira Eliz Orokorrean izen ortako Doneak. Oietako bat —eta Arsenio ta Silbano bere bi lagunak—, euskaldunak seguruas-ki; Arlantzako mendietan, gaur Logroño, Sori eta Borgos'en mugak alkartzen diran tokian aurkitzen dan Urbion-Aitzaren inguruko eremuetan lekaide izan-nak: Autrigoitarrak beraz, larruki auek aipatzen dituzten lurraldeetatik ez ain urrutikoak. 912'garren urtea baiño lenago il ornen ziran. Goizegi, 863'ko larruki ontan aipatua izateko. Pelaji ori izan ezik, nor ote dan bá larrukiak aipatua? Eliz Orokorren donetegiko beste bi aietako bat: Seguruaski Sortaldean Laodi-zea'ko gotzaia izan zana.

JULIANO eta BASILISE: Senar emazteak. Diokleziano'k piztutako zigorke-ta-aroko martiriak. Sortaldetarrak izanik, ez Espaini'rekin ez Bisigotekin zer-iku-sirik izan ez zutenak. Eliz Osoko Doneak.

JUSTO: Bi larruki dira izen ori ematen digutenak. 26 Done izan ditu Elizak izen ortakoak, eta oietatik bi, Euskalerriarekin loturarik izan zutenak edo izan zezaketanak: bat, erromatekoan Gerona'ko martiria, agian euskalduna, beraz; bestea, Euskalerra Zar artan, VI mendean, Urgel'eko gotzai izan zitzaiguna: Justo Urgel'go gotzaia: bere garaiean aski izen aundiko gizona; Bibliaren Ijbu-ruetako bati-buruz, ots, "Abestjen Abestia" deritzan liburuari-buruz idazlan bat argitara eman zuana, eta Sebilla'ko Isidoro Doneak, bere "Gizon Aipagarri"en liburuan azaltzen duana. Jeronimo Doneak ere badamaigu bere "Gizon Bikai-ñak" izeneko liburu ospetsuan, Justo Urgel euskalduneko gotzaiaren berri, baiñan ez dio aren idazkiari goratzarre aundiegirik egiten.

Bada Euskalerriarekin alkartu daitekean beste Justo bat ere. Au ordea bete-betean kondairazko pertsona. Justo printzipe ¿euskalduna?

Akitani'ko Tolosa'ren inguruko lurralde bateko errege jentil baten semeak ornen ziran Justo, Artemio eta Onesta: gero, bataiatu-rik, martiriotza jasan zutenak. Tolosa, Garona ibaiean dago. Araxeraíño iristen zan Euskalerra. Eus-kaldunak ote ziran errege jentil ura eta bere iru seme alaba martiriak? Galde orrek ez du erantzunik merezi. Errege ura ta erregekume aiek kondairako iza-kiak besterik ez bait dira.

Done oiek danak ez dira Done "Bisigotak". Eliz Orokorren Doneak dira; Galietan ere eraspen aundiz omendu izan ziranak.

Eta Toledo'ko Erreiñu Bisigotaren aroko VI eta VII mende aietan gure Eus-kalerra Zaar ura Galietan Ispanietan baiño zabalagoa zalako eta VI eta VII men-de aietan gure Asaben arremanak Iparraldearekin egoaldearekin baiño estua-goak eta ugariagoak izan ziralako, uts egiteko kezka geiegirik gabe jokatu dai-teke, Eliz Orokorren Done oiek egoaldetik ez, iparraldetik baizik, etorri zi-tzajzkigula. Apustu ori gure pelotalekuetara eramango ba'litz, "milla bosteuni" irtengo litzake dirua.

¿Gura larruki auek, ordea, austrigoiak dirala?, eta Austrigonia Galietatik urruti zegoala? Bai noski. Ez ordea Bazeta'tik ain urruti. Eta, askoz gutxiago, Alda-yeta'tik.

\* \* \*

Alare, gelditzen zaizkigu LAU done, zalantzarik gabe Bisigotak diranak.

Oiek ez ziran noski Autrigoni'ra Iparretik iritxi. Zer esan? Ikus ditzagun 4 Done oiek banaka:

ILDEFONSO Españi'ko Bisigotek beren Erreiñuko uriburu izan zuten Toledo'ko goigotzaia. Au bai, au benebenetan dugu Done Bisigotiarra, ez da beintzat Eliz Orokorreko donetegian izen ortako beste Donerik agertzen.

Nola iritxi ote zan gugana Goigotzai aundi izena? Seguruaski Leonidik etorri zitzaigun, BIBERE Araba'ko lenen gotzaiak berak edo bere aiton-monek ekarrita. Bein bakarrik agertzen bai zaigu IX mendean Toledo'ko Goigotzai bikain izena. Eta ain zuzen Bibere'k eta bere senide ta aideek Okoizta'ko londoni Bixintxo'ren lekaidetxeari egindako emaitzen adigarri dan larrukian. Arras alkar-loturik dauzkagu, beraz, Bibere gotzaiaren eta ldefontso Deunaren izenak.

Ikus, larruki orren astapena: "Ego igitur senior Arroncius, et filius meus Tellus et dompno Bivere episcopo, et dompno Petro abba de Okoizta et dompno Alaquide presbiter et dompno Vitulus meo sobrino et dompna Obtavia mater de Dompno Bivere episcopo et filiis nostris (...) offerimus et donamus ad honorem Sancti Vincenti de Ocoizta et tibi abba domno (sic) Petro...".

Azter dezagun aapaldi ori:

– Emaile nagusia, Arrontzio Jauna da, Tello bere semearekin. Gero Bibere gotzaia, Alakide bereterra, Bitulo izeneko jaun bat, Obtavia Bitulo gotzaiaren ama eta beste "gure seme batzuk" aipatzen dira. Aipatzen da, emailleean artean, Kepa Okoizta'ko abata, ere. Au ordea, birridazleren baten erruz toki ortara gaizki sartua; Kepa abata, emaille ez baiña, emaitzen aertzaille izan bait zan. Ori bere esan bera da noski beste "filiis nostris" edo "gure seme" aietaz: okerkeriren baten erruz aurkitzen dirala zerrenda ortan. Bestela, ¿flore seme ziran?

¿Oktabi'ren seme eta, beraz, Bibere gotzaiaren anaiak? ablatibu eran daude bá, bai Bibere gotzaia eta baita "seme aiek" ere. Altagutziz, ez dirudj Obtabi'ren seme ziranik, eta orregaitik sartu du Ubieto'k "koma" edo kakotx bat "Bivere episco" et "filiis nostris"en artean, naiz larrukian bertan orrelako kakotxik egon ez.

¿Arrontzio'ren semeak? Bañan orrela izan ba'litz seme oien izenak emanen zituan Arrontziuo'k, beste arena, Tello'rena, eman zuan bezala.

¿Obtabi ta Arrontzio'ren semeak? "nostris", euskerazko "gure" bezala, "bat baiño geiago"ren adierazle bait da! Orrela izatekotan ordea ez zan Arrontzio, Obtabi emazte zuala esan gabe geldituko, eta arro jakiñeraziko zigun Bibere gotzaia bere semea zala.

Emaile aiak danak sendi batekoak ziran ezpairik gabe, baiñan, ikusi duzunez, beren arteko aidetasunik ezin agertu izan dugu. Larrukian argi dagoan gauza, auxe da: Oso-oso aberatsak zirala, eta "aberastasun ura, Leon'dik etorri ziran aiton-amonengadik jasoa" zutela: "histas erencias de nostros avus habemus de Legione venerunt ibi".

"Ibi": Nora? Estabellu, gaur Estabillo deritzan Araba'ko errira, erri ontan bait zituzten ontasunik mardulenak: "in villa Stabellu".

Leon'en egonak, baiñan euskaldunak. Ori adierazten du Araba'n alako aberastasun aundien jabe izateak. Noiz joan ote ziran Leon'era? Asturietatik atzerrira igesi, babes-billa Arabara etorri zan II Alfontso, ostera Asturietara itzuli zanean? Araba'ko jende geiago ere joan ornen zan bá errege arekin. Izan ere euskotarra zan ura, Muña bere amaren aldetik; eta agian baita euskalduna

ere, ama ezpairik gabe euskalduna zualarik eta bera ere VIII medean Araba'n bizitu zalarik. Mintzatuak gera, "Euskerazaintza"n, Muña erregiñaz, I Froila (757-768) Asturietako erregeak Euskalerraren aurkako gudaldi batean katigu arrapatu zuan eta gero bere emazte egin zuan neskatil euskaldunaz. Gure larrukiko gizakume auek..., ¿Muña'ren aideak ote ziran?

Leon, ordea, Arabitarrena zan oranidik 842'an, II Alfontso Asturietako errege Muña'ren semea il zanean. 14 urte geroago, 856'ean, izan zan I Ordoño'k Asturietako erreñuarentzat irabazia, baiñan 871'an, gure larruki onen urtean, nortasunik gabeko erri koxkor bat besterik ez zan oraindik. Urrengo mendea ongi sartu arte, ez bait zuan, arrezkero izanen zuan garrantzirik irabazi. II Ordoño (914-924) izan zan, garrantzi ori ematen asi zitzaion erregea.

¿Izenen nasketa bat, "Leonigo Erreñuaren" erta "Asturietako Erreñuaren" izenen nasketa bat ote dago, edozein moduz ere aski naasia dan gure larruki ontan? Izan ere, bereiziki XII mendeaz gero eta Leonigo Erreñuan, eta Leon'en bertan seguruaski, izan bait ziran larruki auek berr-idatzlak.

Danadala, —871'ean "Leonigo Erreñua"z mintzatzea ez bait da oraindik zillegi—, Asturietako Erreñuan izan zuten gure larrukian agetzen zaizkigun gizakume oiek ldefontso gotzai toledotar ospetsu aren ezaguera; bearbada irakuri ere zuten aren liburu ederretakoren bat; eta, beren Euskalerrira itzuli ziranean, ez zuten aren izenik larruki ontan aipatzeke azturik laga nai izan.

KIRIKO: Esan berri dugunarekin ez zaigu ordea, Donildefontso'ren auzia erabat konpondurik gelditzen, ura 657'an ilda, Toledoko goigotzaiaulkian aren ondorengoa izan zan Kiriko'ren izena ere bai bait damaigu Kukulla'ko beste larruki batek. 871'koa zan Bibere gotzaiaren eta bere aideen larruki ura. Urrengo urtekoa da berriz beste au, 872'koa, dirudianez beintzat, eta 871'ko arekin zer ikusirik ez duana. An aipatu ere egiten ez diran beste iru elizgizon bait dira 872'ko larruki onen idazleak: Paul abata, Jon bereterra, eta Nuño ¿diakonoa?

Nondik eta noiz eta nola sartu ote zitzaigun Kiriko Doneaganako jaiera?

JUSTE ta ERRUFINE. Sebilla'ko neskatillak. IV mendean martiri eraillak. Jentillen jaialdi batean, Adonis sasijainkoari omen egitea ukatu ziotelako izan ziran eraillak. Kiriko'ri-buruz egin dugun gade bera egin dezakegu bi neskatx done betikatar auei-buruz.

Nondik etorri ote zitzaigun bá Euskalerrira, LAU done bisigotiar oien ezauntza?

ldefontso Deunari aurki aal izan diogu etorbide aski ziurra. Baiñan, alare beste IRU gelditzen zaizkigu etorbide egoki baten zai: Juste ta Errufine eta Kiriko.

Eta Juste ta Errufine'ren izenak, beti alkarrekin idazkietan aipatzen eta aldareetan omentzen diralako, done-izen bikoitz bat bezala artzen baditugu ere, or dauzkagu, oraindik bi done-izen, JUSTE-ERRUFINE eta KIRIKO, larruki auetarako sarrera noiz eta nondik billatu aal izan zuten aztertzeke.

Nondik bá? Eta noiz?

— ¿Bisigotengandik, VI, VII mendeetan, eta VIII'aren lenen urteetan? Ez. Aundia izan zan, katoliko egin ziran ezkerero, Españi'ko Bisigoten kultura, eta bizkorra aien erlijiotasuna; baiñan Euskaldunen eta Bisigoten artean ez zan gudua ta gudua besterik gertatu. Batez ere, Bisigotak arianikeria lagata katoli-

ko biurtu ziranez gero! Egunetik egunera ari zaigu argiago azaltzen bisigotek ez zutela Euskalerrian kulturari-buruzko eraginmenik izan.

—¿Españi musulmaneko Mozarabeengandik VIII eta IX mendeetan? Eztare. Ikusi dugun lez, VIII eta IX mende oietan mozarabitasuna bere nortasuna lortu gabe aurkitzen zan oraindik.

—¿Asturietako Erreiñutik? Bai, noski, ezpairik gabe. Zubi bat, erlijiozko zubia gaiñera, izan bait zan aldi aielan euskaldunen eta asturitarren artean: Balpuesta'ko gotzaigoa.


Balpuesta, lateraz "Vallis Composita" eta, izena laburtuz "Vallis Posita", Araba'ren sarkaldean zegoan: gaur-egun, Araba'ko Gobiaran'en Burgos'ko Pro-bintziak sartzen duan adar luze estuaren mutur-muturrean.

Balpuesta'ko Gotzaigo ori, erdi-euskotarra eta seguruaski euskaldun osoa zan errege asturiar batek sortu zuan IX mendearen asieran, 804'garren urtean: 11 Alfontso'k. Muña erregin euskaldun aren semeak.

Zubi ori izan zuten sarbide bi done-izen Bisigotiar oiek, nere ustez beintzat.

Izango dugu "zubi" orren garrantzia zeatzago ezagutzeko adiontasuna. Kukulla'ko IX mendeko larrukien azterketa amaitu dugunez gero, bereala Balpuesta'koak ere aztertzen asteko bai bait dut asmoa.

Latiegi`tar Bixente







# IZKUNTZA, KULTUR- ALTXOR BALIOTSUA

## Leen, orain eta geroan

Europa'n, Kristo aurretiko mendetan (eta geroxeagokotan ere) mundu eza-gun-zibilizatuan, Mediterraneo ingurune guztitik Indietaraño, gizakien alkar arteko edabiderik nagusia gertera izan zan. Sokrates, Aristoteles, Platon, Homero... izan ziran espirituaren baloreak gerkar-izkuntzan lantzen gaillendu zitzaizkigun tarteko batzuk.

Ereduzko gerkar-kultura onen ondoren, Itali'ko erdiugarte luzean, ain ez-ezaguna zaigun etruskeraren kultur-erro gaiñetik sortuberriko latiña lurrazpia jaten joan zitzaion gerkerari, nekez ta astiro baiñan erabat.

### LATIÑAREN MUNDUA

Gaillendu-eziña izango zaigun gerkar-izkuntz aintzatsuaren prestakuntzaz, latiñak Europa'n barrena luza-luzatu zituan bere adarrak. Eta leen, arlote ta arrunt izandako izkuntza, orain arro-aizez puztutako latin onek (Grezia'n bezelatsu) bere izkuntz-kultura mundutik at gelditutako guztiari "barbari" deitu zion. (Beraz, euskaldunok ere onen erdeiñuzko deiturapean giñan). Eta latiñak berean jarraitu zigun, Ernazimentuak tokian tokiko mintzairaren landubearrari, bizi-senaz, eragin zion arte.

Latiñaren edakuntzarekin, dokumentu-agiri geienak, merkataritzari zegozkionak, gobernarien artekoak eta Estatuetakoko paper politikoak, latiñez egituratzen eta idazten ziran, eta Unibertsitatetan latiñez ere adjerazten maixu-ikasgaiak.

Krakobia'tik Oxford'era, Bolonia'tik Salamanka'ra Sorbona'n barrena. Eta gizikastun-humanistak (Erasmus, Thomas More...) Cicero ta Virgilio'ren izkuntz ospatsua arrakastatsuki lantzen eta garatzen saia oi ziran bitartean, latiña, gaillurra jorik, beeraldira joeraten zan.

### FRANTZES IZKUNTZAREN ALDIA

Europar nazio edo Estatuto berrien pizkunde ta gaillentzearekin, izkuntzen bigarren aldi berezia eltzen zaigu: frantzesarena. Argikuntza-Ilustrazioak dakar-

kigu frantzes izkuntzaren nagusitza, Europa'ko Gorteak, Moscu'tik Madrill era frantzeraz mintzatzen ziran. Orrela ba eta ustegabeen, lantzen asitako erri-mintzairak frantzes-kutsuko itzak berenganatu zizkiguten. Dotoretasun-martxa au frantzes-zaleak ematen zuten. Azkoiti'ko Zalduntxoak Diderot eta D'Alembert'en enziklopedia irakurtzen ziguten. Inkisizioak bere ortzagin zorrotzak erakutsiarren, Bilbon eta Donosti'n eskuz-esku zebiltzen zenbait aldizkari eta argitalpen. Eta gizaldi onen asieran, diplomaziaren izkuntza frantzeraz zan. Gaur, ordea, esti-atzeraka etengabe dijoan izkuntza da. Paris'ek –Frantzia'k alegia– bere leengora biurtzeko gogoz, zenbait ekimen ibillian aleginduarren... Gaur danok dakigu, oraiña eta geroaren osertzean, Europa'n ezezik mundu osoan ere, inglesa dala izkuntz gaillurtua. Merkataritzan, kulturean, teknologian, nformatikan eta baita gazteen be-kultur berezian ere. Ikerlaritzaren mundua, nola ez, ingelesez mintzatzen da.

## GURE EUSKAL IZKUNTZA

XVI gn.mendean Estatu nazionalak antolatzen asten diranean (norbakoitzaren izkuntza landuz), gun edo ardatz baten inguruan garatzen dira. Euzkadi'k Naparroa du ardatz-une ori. Baiñan, 1512'garrenean konkistatua izan zanez, beregaintasun ederra galduz, erakarmena ere galdu egin zuan. Orra ba, Euskalerrri osoa bere erritasuna garatu eziñik ta euskal pizkundea sorte ezinda gelditurik. Alabearraren beazun-irriparra!

Ta Naparroa, euskeraren lantzaille ta indar-emaille izan zitekeana ta Santxo Jakintsuak bere "lingua navarrorum" izkuntz ofiziala aitor-erazi zezakeana, bere artantxe geratu zan: jota. Ta euskera okerrago, bilux, babesga. Ez da bada bidezko ta ezago zillegi euskerak garatzeko indarrak ez daukanik erdeiñuz esatea, azpi lurra, ongarria kendu ezezik españiar gorrotoaren erdoi zaurikorra gaiñeratu bai zaio euskal izkuntzari.

## EUSKERARI BURUZKO IRITZIAK

Azken berrogei urte auetan zearo kezkatu rik giñan gure izkuntzaren etorki-zunaz. Eta nolatan eldu gera 1995'ra? Ez noski etsipenak erabat abajldu gindualako, ez gure buruak gorrotoaren amildegian amildu genitualako, gure baitan "iraun" eta "bizi" itzak egundoko indarra dutelako baizik.

Etzuan olakorik sinistu izango joan dan gizaldiko Gillermo Humbold alemanak. Izkuntzalari ospatsu onek ikustalditxo bat egin zigun. Noiz-eta 1801 garren urtean. Eta Euskalerrri inguruko bi izkuntza landuen indar betea zunbaterañokoa zan antzemanik, bere egunerokoan auxe idatzi zigun: "Ogeitabost urteko bizia ematen diot euskerari".

Etzuan uste luzaroko bizitzarik izango zuanik. Eta zenbat urte igaro dira arrezkero? Atera itzazu kontuak, irakurle! Eta gaiñera, arek uste ez bezelako erasoaldi ta zampakuntzak bizkarreratu ondoren, eta etxean bertan irradan genituan adur txarreko "unamunok"ta beste zenbait bela beltzen kua-kua amorragarriak "ilko giñala eta ilko giñala" ozenkiro belarrietarutzen zigutenak gure oñaze ta miña miñagotzen, oso luzaro entzun ondoren. Gaur, zenbakiai begira, orduan baiño geiagok itzegiten dute euskera, erderaz ere geiagok erabilliarren. Eta okerrenetik begiratuta ere, setakeria litzake oraindik luzerotoxan

gure izkuntza biziko dala ukatzea. Gu baikor eta itxaropentsu gera. Ikusbeltz ez geralako, euskera oparotasun beteko aldian sartu degulakoan gaude eta oso pozik gaiñera. Ekiña da gure jokabidea. Kukurrukua jo degu. Ez degu kotartzeko asmorik. Jaunari nai dakiola!


## EUSKERA, EUSKAL NAZIOAREN AÑIMA

Euskerak, beste ezerk baiño eutsi dio gure Erria'ren nor-izanari. Au ala dalarik, abertzaleontzat ez da beste egiazko burrukarik euskeraren aldekoa baiño. Politikazko aalmenik gabe ez dagoala orri eusterik egi borobilla ori ere. Indar onek egin ditzake euskaldun gure ikastetxeak, ardulararitza, eliza ta ain bearrezkoa-noraezekoa degun euskeraren Unibertsitatea, etxeak mintza-jardunaren alde dezakenaekin batera gure kultura sendartzeko. Onezko aizez asaben orubea eguras dezakegu!

## INGLESA ALBOZ-ALBO

Etorkizunari begira, praktikari geranez, euskeraren ondoren edo-ta batera ingelesera. Au garbi ikusten ari gera dagoaneko. Ad;men, informazio ta merkatari-arremanetarako gure ondorengoak inglesa erabiliko digutela esateko ez da azti izan bear.

Egaña tar Gotzon



# Euskeraren geldokian trenak iges

## PIXU AUNDIKO MAXIAKETAK

Urteen urtetan eta mendetan, gure Erri-izakeraren erraiñu plastikua degun euskera, alor-izkuntz arlotetzat joa, baztertua ikusi degu.

Antziñateko arbasoekin Jotzen gaituan gogozko euskal-kate eder oni, geienbat gu danon zabarkeriz, zeukan araztasuna urritu-azi egin diogu.

Kate dizdiratsu izaten jarrai zezan, urregiñak bear izaten dituzten antzera euskerak ere garbi-tresnak eta lan-tresnak noraezekoak zituan, bear-bearrezkoak aspalditik, premiazkoak orain ete beti. Baiñan eskola gabeko Errj izan geranez ez degu lanabasi izan, etzaigu tresnarik kaxkarrena ere eskuratu izkuntz-lur au lantzeko, alegindu ere ez gera geiegi-ta.

Aurrera egiteko, beraz, egokierarik ez?

Begira. Izkuntz arlote izanak (danak izan dira) bere abagune edo egokiera izan dute, bere aldia, TRESNAZ landuak izaten asteko. Egokiera ori, trena ori arapatzen jakin bear: ernazimentuaren trena, Estadu nazionalak XVlign. mendean ezurmamitzen eta antolatzen asten diranena, izkuntza ezlanduen landuarena... Guri, zoritxarrez, bultzi ojek igesi joan zitzaizkigun, etziran gure gelto-kian geratu ta soraiokeri aundienaz pasatzen utzi genituan. Ta orra "lingua rustica" deituriko gure euskera, babestugabea, bere landugabeko aldi edo fasean gelditua. Estadu berriak sortzen, izkuntzak pizten eta gure Erria, probintzikoi orbel antzo, bateratasunez zurtz, batasunez zurtzago, marjinatua, auzoetako erderaz balia bearrez...

Orain, XX'gn.mendea bukatzeaz, bultzi, berrja, tresnagaiez ornitua datorkigu, iritxi zaigu: estatutoarena. Ez dakit, baiñan, ez ote degun au ere pasatzen utziko, nagixko bai gabiltz euskaldun abertzaleok iñora eltzeko, gure alkarrren arteko asarreak gandupuan biltzen bai gaituzte, bultzi interesgarri au ere doidoi ikusten degularik. Ta, bitartean, Euzkadi ta euskera... zera erderaz goratzen. Ulertueziña!

Guk oni garrantzirik ematen ez ba'diogu, nork eman? Biguñegi jokutzen ari geranaren zantzuz, onatx, zenbaiten tarteko, iru aletxo?

### EUKADI'KO DIRU-TXANPONAK

Ez dakit zenbaterañoko neurrian atera genion etekiña, ondorio emaitusakona gure guda-aurretiko, edo-ta obeto esanik, gerra bitarteko estatutoari, euskerakikoetan, noski. Idazten ari naizen une onetantxe, begibitan dauzkat garai artan, izkillu-tximist tartean, Euzkadi'ko gobernu eratu berriak aterazi zituan diru-txanponak. Zillarrezko ziruditen aietan, arranditsuki ageri dira "Gobierno de Euzkadi" itz auek, erderaz jakiña!

Ez det iñun irakurri labe berritik ain pozik ateratako diru aien erdal esakunen aurkako maxiorik. Egi az ari ote nai? Ez! Irakurri nuan maxio bakarra, artikulu bakarra Caracas'en izan zan "GUDARI" deiturapean azaltzen zan gazte-aldiz-

kari aberkoian. Jaularitzan ondasun-sailburu genduan Eliodoro de la Torre abertzale jator arek ez al zuan nabaitu euskeraz jarri bearra esakun au, ez al zitzaion burutik igaro diru-ale euskal esakunez jarri zitzakenik? Agian, erderaz jantzirik Euzkadi obeto goratu zezakeala iduritu ote zitzaion, bertakoai baiño kanpotarra edo arrotzai begira?

## SABIN'EN DOMIÑAK

Erbestealdiak uste baiño luzeago zlrauan. Eta Arana ta Goiri'tar Sabin'ek jadanik omenaldi ikugai merezia zeukan. Nola-ta urrezko domiñetan aren buru ta abizen-izean agertaraziz. Jel-burukideak, Caracas'en "GUDARI" argitaratzen zan garaian, urrezko domiña ederrak atera zizkiguten ba eta pozik salgai jarri, gure Erri-salbatzazaillearen abizen-izenak erderaz jarrita baiño. Ñaiz-ta jakin, gure maixu goenari "Arana ta Goiri'tar Sabin" idatzirik ikustea atsegin zitzaiola ("tar" ori abizenetan, jatorria adierazteko, berberak egokjro asmatu ta tajutua, berritasun jatorrez gaiñezka edatu bear zalako, eta guri, aren jarraitzaile geranoi, ala zegokigulako eta dagokigulako).

Garai artan Benezuela'ko uriburuan bizi nintzalarik, txanpon-eraketan adukizun izan zuten jelkideai nere naigabea jakiñerazi nien erdal-itsusikeri ua salataz. Eta onatx enantzuna: "Ez gera ortaz konturatu, etzaigu burutik igaro euskeraz jarri zitekeanik! Arrazoi trixtea benetan!

Nun da euskerarekiko kezka, gain-gaiñeko kezkarik negusiena izan bear lutekenen artean?

Gorago, txanpon-zatikoa alegia geniona, berriztu bear izango ote degu galdera berberarekin? Gure izkuntzaren erdal-apologista utsak ote gera, euskeraren erabateko ospe-barauz, eskaparate-lan egiñaz kanpotarrak ikus gaitzaten?

## ELIZAREN JOKABIDEA

Eliz-gizonak izan ornen dira, an-emen, euskeraren eragille ta salbatzailleak. Batzuk! (nik) Eunekotan urriegi, eta au ere ez aspalditxotik. Baiñan eliza, eliza ofizialaren jokaera euskeraren aldeko, gure Erriaren aldeko izan ote danik nork esan dezake? Beste edozeiñek galde dezaidake: baiñan eliza erlijioa lantzeko da eta ez euskeraren alde jokatzeko! Eta nik: ta zanpatzeko bai? Ez al da egia apaiz eta praille askok, len, naiago zutela gaztelaniaz eta euskera latinduz edo latiñez predikatu euskeraz baiño? Ez al zuan San Inazio'k berak Italia'tik, euskeraz etzekien Borja'ko San Francisco Euskalerrri'ra bidali?

Apaiza beti, jende xumearekin, batez ere, arremanetan bizi oi da. Eta auei zegokien aspalditxotik, kulturadun ziran ezkerero, euskal lanari ekitea. Baiñan, euskera ez da latinkumea eta etzitzaian kultur-altxor iruditzen edestitik la bazterturtako Erri basakumearen izkuntza zanez. Euskeraren erdeiñatzalle ziran erdalzaleen gurdjan, ajez eta putzez aragitutako jauntxo ta aberatsakin bat egiñik bizi ziran urte luzetan. Eta auekin batera, euskera kultur-izkera etzan ezkerero, piku ustelik balio etzualako erri xearen gaiñetik jaso nai izaten burua. Agian, Cisneros cardenal larderikoi arek zionari jarraituki: "españolizatu gabe ez dago ebanjelizatzerik".

Ez da ordea elizarekikoa gure jarduna izan nai. Izkuntza idatziaren arlora

mugatuko gatzaizkizu. Eliz-idazkiak nola datoz? Amaseigarren gizaldian asi ziztaizkigun parroki-buruak bataio-agiriak-eta idazten, oso-osorik gaztelaniaz dakigunez, beti izkuntza orri uztarturik. Arrazoibide politikoak? Eta onela gaur arte. Ez ote da garaia euskaldun geranontzat jaioberrien eliz-paperak, ildakoenak-eta euskeraz idatzirik ikusteko? Ez ote degu iñoiz izango euskal kultur beregainik? Ez da arrazoirik oraiñartekoa zuzenesteko, iñungo izkuntzaren morroi izateko.

Gure Erria, ofizialki elebidun gertatu dan ezkeroztik ez da, nik dakidanez, oietako agiririk euskeraz idatzia izan. Nik, beintzat, saiatuarren ez det alerik ikusi. Gure-gurea dana defenditzako nun da gotzai-agindu berririk?

## LAN ONEN OSAGARRI

Israel'ek beregain bizi aurretik ere, lur onetara etorriak euren abizen-izenak eberkerara biur oi zizkiguten. Onela, jatorki urikotu eta bertarakotzen ziran eremu auetara eldutako nun-naitarrak; adibidez, Ben Gurion, Eliezer Ben Yehuda etabar.

Emen, aldatu bearrik ez ditugu abizenak, baiñan bai askotan auei ats eman, euskal eran eta grafian ipiñiz: Saratsola (ez Sarasola), Latsa (ez Lasa), Ardanza (ez...).

Abertzale naizen aldetik ere ez det ulertzen nolatan euskal familiak erderaz iragartzen dituzten izparringietan ildakoen eskelak.

Euskaldunok neurriz gain erderari toki egiten diogun bitartean, Euskalerrria ez da osorik gure Erria izango. Ebro'tik berakoekin berdindu ta kateaturik bizi geranaren zantzu nabarmenena folklorizmoz jantziko ote degu bat?

GOTZON EGAÑA



# "H"AREN AUZIA BUKATZEKO BIDEA

("Diario de Navarra'n agertu den lantxo onen azkeneko itza irakurri arte, irakurle, gorde ezazu, arren, zuen iritzia)

"H" a batere kezkarik gabe onartuko nuke nik.

Gerra-ondorean emendik Frantzi'ra joandako gazte iraultzalariek "el batua" sortu naiean asi ziren ezker, "H" a borroka-letra biurtu zaku euskaldunen artean.

Euskaldunik geien-geienek ez dute "H" rik onartu. Ori erakusten dute orain arte egin diren enkuesta guztiek, eta oraintxe bertan egiten ari den enkuestarik garrantzitsuen eta baliotsuenak.

Alare, ni, "H" a batere eragozpenik gabe ontzat artzeko prest nago. Euskerazaintzakook ez diogu "H" ari batere gorrotorik, "H" ori letra bat dan aldetik. "H" a, neri, polita ere iduritzen zait: Bi lerrotxo zuti, bien erdian zearka etziñik beste lerrotxo ttipitto bat..., badirudi goigotzai baten aulkia.

Nik, eta Euskerazaintzako guztiok, beste edozein alperrikako izki edo letra kaltegarri bezala, alperrikakoa eta gaiñera arras kaltegarria dan "H" a gertatzen zaigu gorrotogarri. Alperrikakoa dan "V" a bezalaxe.

Euskeraren eta mundu guztiko izkuntza guztien ortografiarentzat araurik bikaiñena, urrezko araua benetan, Naparroa'k zor aundia —oraindik ordaintzeke dagoen zorra— dion gizaundi batek, Arturo Kanpion'ek, eman ziguna da: "Ots bakoitzarentzat letra bakarra, eta letra bakoitzak ots bakarra". Beraz, otsikezak letrarik ez, et otsik gabeko letrarik ez.

"H" ak gure euskeran soñurik ez du. Eta, erabakirik dagoenez, ez du izen bear "el batua" n ere.

Nere ustez, erabaki ori, zentzugabekeri mardul bat besterik ez da.

Zentzugabekeria beti izen da bitarteko "H" aren arazo ontan aurren-aurreneko une berberetik. Batere baliorik gabeak bait dire "H" a erabiltzearen alde sortu diren arrazoi guztiak.

Alare, nik ezpairik gabe onartuko nuke "H" a.

Naitanaiezkkoa gertatu zaie atxezaleei baliorik gabeko arrazoiak sortu-bear ori, "H" aren komerj ontan baliozko arrazoi bakarra, Kanpion'en bidetik jarraituz Sabino Aranek eman zuana delako: "Soñurik ez? Letrarik ere ez. Soñurik gabeko letrarik ez". Beraz, "H" a, bai. Baña letra ori agoskatzen duten euskalkietan, eta oietan ere (Benaparro-ta-Zubero'ko euskalkietan), "H" ori agoskatzen duten itzetan bakarrik). Letra ori agoskatzen ez den euskalkietan (Laburdiera eta beste euskalki guztietan), "H" rik ez.

Yakintza edo zientzien agindura orixe da baliiodun arrazoi bakarra.

Zertan oiñarritzen ote da bá atxezaleen leia, zientzizko arrazoietan oiñarritzen ez den ezker?

Erraietatiko eragin ulerkaitzetan.

Alatagutziz artu egingo nuke nik "H" a.

Erraietatiko indarren araura, "H" a, "euskal erreboluzioaren sinbolo plastikoa

dela" diote atxezaleek? Zergaitik dioten ori? Nere ustez, "H" ori, elenerazko alfabetoaren 7'garren letra delako: "alfa, beta, gama, delta, epsilon, dseda, ETA, zeta, iota kapa..." (elenera aztu zaku, naiz ikasketakoan Itun Berna, ala-ola irakurtzeko gal izatera iritxi, bañan, ainzuzen "Galtzaundi"ren musika erabiliz ikasi genuen alfabeto ori, ez zaigu oraindik aantzi).

Guzti ori jakinda ere, ni "H"a sartuz idazteko gerturik nago.

Aurretik ordea, baldintza bat eskatuko nioke Euskaltzaindiari:

Otsik-ezari, soñurik-ezari, baliorik-ezari ikur edo signo bat, au da, LETRA bat, ematea yakintza guztien arauen aurkako gauza den ezkeru, ez otsik, ez soñurik, ez baliorik duen LETRA orri, egiazko balore bat ematea:

"H"ak, agoskatua den izkuntzetan, (Benapar-Zuberoeraren "H"ak adibidez) "J"ren antzeko doñua du, edo ia-ia "J" berberaren soñu indartsua (doistarren "Hitler" itza, adibidez, edo inglanderriarren "Halifax" lekuko).

Erderki.

Joka, dezagun, beraz, yakintza guztien araura; eta, eman "H"ari "J"ren otsa!, eta, nik beintzet, pozik erabiliko dut balioz-jantzitako "H" ori "J"ren orde. Naiz, ori bai, izki polit ori galtzeak min pixka bat eman. Bedi guztia euskeraren barren-pakerako!

Eta irten bedi bizirik Euskera gure ama; il zorian, ia azkenekotan aurkitzen dan une auetan, eriotza azkarragotu lezaioketen txatxukerietan ibiltzea, EZ BAIT ZAIGU ZILLEGII!!!

AZKEN OAR BIKOITZA: Onako auek izango lirake, beraz, nere aurkezpen onen bi baldintzak:

1.<sup>a</sup>: Orain "J"z idazten ditugun itzetan, "J" orren orde "H" erabili. Itz oietan, "H"a, otsa izanen duan izkia izengo bait litzake: "J" ren otsa ain zuzen.

2.<sup>a</sup>: Beste "H" guztiak erabat kendu bein betirako. Soñurik ez dutelarik ezertarako balio ez duten izkiak direlako: mamerik gabeko azal utsak; ezereza-zen ikurrak. Eta, negozio bat sortzeko baliorik gabeko dirua, basurdea eizatze-ko polborarik gabeko bala, eta gizakume makala sendotzeko baliorik gabeko sendagaia erabiltzea manikomioko jendeen jardunkera dan bezalaxe bait da gauza bera izkuntza bati baliorik gabeko izkiak sartu nal izatea.

Ta makal ez baiña iltzear daukagun ama euskerak ez du arras kaltegarri dituan baliorik gabeko gauzen bearrik.

¿Jon, jan, joan, jaun, jolas, jende, eta beti "J" idazti ditugun oien antzeko itzetan "J" ori kenduta itz oiek Hon, han, hoan, haun, holas, hende idazten astea, txorakeri aundia izengo litzakela?

Bai. Eta aundienatakoa gañera!

Alare, "H" ori soñua baduelako zentzudun "H"a izengo litzake.

¿Zer pentsa, ordea, ez soñurik, ez zentzurik, ez zientzien aldetik batere arrazoirik ez duen beste "H" orretaz.

Orixen zan bá irakurle ironiaren bidetik idatzia izen den nere lantxo orren elburua: Zorigaiztoko "H" ori, asma ditteken txorakeririk aundiena dela ezpairik gabeko argitasunez adieraztea.

Latiegi'tar Bixente





## Liburuak eta idazleak

# IÑAKI ZUBIRI ABERZALE TA IDAZLE LANGILLEA

Liburu berriaren izena = ERROTAZAR.  
Argitaratzailea = Euskerazaleak, Bilbo 1994.

Idazle langille onek, urtero liburu berria argitaratzen dabil. Oraingo onetan eleberri bat azaltzen digu, asmoz ondo jantzia. Errotazar delako etxean erailta bat gertatzen da. Aita-semeak iltzaile bezala agertzen dire. Ipui luze baten ondotik, semea Errotazar'en, urgeld;an ;totzen zaie. Andik gutxira aita iltzen da, eleberriaren norki nagusia erailteko asmoz, Errotazar'era doanean, semearen eriotzaz apentza edo mendekua artzearren. Neska ausarti batek zerikusi aundia dauka eleberri onetan.

Liburu onen aurretik beste eleberria argitaratu zuen:

Izenburua = PATXI  
Argitaratzailea = Euskerazaleak, Bilbo 1993.

Umezurtz baten gora-berak esaten dizkigu idazleak. Zatik bizigarriena Brasil'go garaia dauka. "Guarani" esaldiak ere sartzen ditu tartean. Ibillialdi luze baten aria agertzen digu

Aipatu bearra daukagu, "GALDU" (1979) izenarekin deitutako eleberria. Txakur baten b;zia dabilki gai nagusia bezala. Txakurra goserik dago ta janari billa ethez etxe dabil. Ikusitako etxeak nolakoak diren, agertzen dizkigu. "Cervantes"en "Txakurren elkarizketa" delako liburuaren antza aundia dauka. Elerti aldetik, Bixente Latiegi'ren iritsiz, Zubiri'ren liburu au, "Cervantes"ena baño ohea da. Biyek irakurrita, ornen mamia aberatsagoa dauka, izkuntza garbiagoa ta elkarizketak benetan atsegiñak.

Idazlearentzat libururik kutunena, BORDAZURI (1986) da. Zertaz mintzo zaigu? Napar euskal erri txiki batean asten da ekintzaren aria. Gazte aurrelari bat, anaiarteko gudaren zurrunbilloan nastua, Bilbora dijoo burrukara. Guda ondotik iru urteko espetxea jasan du. Etxeratzearekin amaitzen da liburu. Idazleak, berari gertatutako gora-berak asko azaltzen d;zkigu. Mezu aldetik, euskal gudariaren ardura ederra agertzen digu, den dena gaurko gaztediari adierazia, batez ere arbasoen aberriaren maitasuna zuzpertzeko. Orduko gazteak gogor eta gogotik jokatu dutela, dio.

Bidezkoa deritzaigu beste liburuen zerrenda agertzea. Sailla luzea dauka:

EDESTI LABURRAK		
"OROITZAK"	— Gipuzkeraz	1975
"IZADIKO PITXIAK"	— Gipuzkeraz	1984
OLERKI - XORTA		
"BIDETIK AMESETAN"	— Bizkaeraz	1984
"AMESEN ILDOTIK"	— Bizkaeraz	1991
IPUIN-XORTA		
"BIDEKO IPUINAK"	— Bizkaeraz	1987
ELEBERRIAK		
"MORROIA"	— Bizkaeraz	1989
"PLORENTZI"	— Bizkaeraz	1990
"YANOZ"	— Bizkaeraz	1991
"MENDEKUA"	— Bizkaeraz	1992
IRAKORLAN ARGITARATZEKO		
"BASAMORTUKO SEMEA"		
"TXOMIN"		

Gure idazleak erabiltzen duen euskera, xamurra, aberatsa ta egokia da. Esaldiak indar aundikoak ditu. Itzak euskal atsazkoak, errex ulertzen direnak. Euskera errikoia dauka, gure etxe ta karriketan entzuten dena, bizi-bizja.

Asko lantzen ditu euskal nortasunak, egitazko ekintzaileak, langille amorratuak, itza betetzen dakitenak, lagun ziñezkoak, asmatzen mugarik gabekoak. Ñaita agertzen dizkigu gudari zintzoak, itsazgizon ausartak, langille trebeak, salerosle sendoak. Ba daki izkuntza lantzen eta gure nortasuna aztertzen.

Nor dugu Inaki Zubiri? Bilbon jaio zen 1913'garren urtean. Aita, Elgorriaga'tarra (Naparroa) da. Aitan aldetik, "amatxik" erakutxi zion euskeraz. Ama Portugalete'tarra zeukan. Jose Altuna ta Kirikiño irakasleak, Institutoan erakatsi zioten euskera lantzen. Bertako Ikastetxe Nagusian Ingenierogintza ikasi zuen. Anaiarteko gudan zuzen sartu zen. Gudari bezala OTXANDIANO delako taldea egokitu zitzaion. Gero Euskadi'ko Guda-akademia'n Teniente de Artilleria egin zuten, eta "Enlace de Estado Mayor" en garai luze batean iraun zuen. Orren ondotik, Bilbao erori aurretik, Artilleriko nagusiaren laguntzailea izendatu zuten; andik gutxira Santander'en "Inspector de Parques de Artilleria", Santoña'ra Italia'tarrak sartu arte.

Santoña'n giltzapetu zuten eta zigortutako langille taldearekin eraman. Orrela DUESO'N urte bat egiten du ta PUERTO DE SANTA MARIAN beste bi. Borroka ixillean alegiñak egiten ditu ta Euskal Jaurlaritzak aolkulari izendatzen.

1949'garren urtean, ertzaintzak atxillo izateko zorian, ezkututzen da, eta gero, Ajuriagerra'ren aolkuz Baiona'ra dijoa sei illebeterako. Argentina'n bost urte agiten ditu lanean (1950-1955). Aberrira itzulita, "General Elektrik" eta "Indu-Metal" olategietan, ingeniero bezala lanean dabil.

Iñaki Zubiri'k sendi ederra sortu du. 1943'garren urtean ezkontzen da, Begoña Ganboa andereñoarekin. Emaztea Filipinas'etan jaioa da, baiño gurasoak Bizkaitarrak ditu, arront euskaldunak; euskeraz ondo egiten du. Zazpi seme-alabak sortzen dituzte, sei bizirik; lau mutil, bi neska.

Nundik sortu zen gure idazlea? Gudari bezala, aberriaren alde arpegia eman zuen. Guda galduta, ixillean eta itzaletik jarraitu zuen aberzaleen jokabideetan. Aberriaren alde borroka baretu zanean, Euskalerrriari laguntze arren, euskeraz ondo ikastea erabaki zuen.

Zartzarora artu zuenean, 1975'garren urtean, euskeraz idazten asi zen. Len

astirik ez. Gerostik liburu pilla egiña ta idazlan bakan batzuek "ZER" eta "EUSKERAZAINTZA" aldizkarietan.

Jakiña, ba ditu ondo aukeratuak euskal idazle maitenak: TXOMIN AGIRRE, LIZARDI, LAUAXETA, ORIXE.

EUSKERAZAINTZA'KO kide berexia daukagu Iñaki Zubiri; 1972'garren urtea ezker, asieratik ain zuzen.

Gaur egun ba ditu bere kezkek ere: "EL-BATUAK EKARRI DUEN TXIROTA-SUNA TA ZITALKERIA". Euskera asko maite duelako esaten digu ori.

Erriaren euskeraz, eten gabe, idazten dula, nolako gizona den agertzen digu, baita ere aberriak bear duen ziñezko gudaria: beti lanean, erne ta zutik, azkeneraño.

LATXAGA

# ANDONI KORTAJARENA EUSKERAREN GUDARIA

Taldeko liburu: HAUTSA KENDUZ II- ALTZA.

Andoni Kortajarena'ren lana: "HERRERA'TAR ZAAR BATEN BIZIKASKIZUNAK".

Argitaratzailea: DONOSTI'KO UDALA 1994.

Amabi orrialdeko idazlan batean, Andoni Kortajarena'k, Herrera delako auzoaren berri zarrak ematen dizkigu. Gazte batzuek autsa kentzen asi ziren: itzaldia antolatzen, argazki erakusketa ta liburu bat bi izkuntzetan argitaratzen.

Kortajarena'k auzoko edestiaren urrats zarrak ematen dizkigu euskeraz. "HERRERA", ura zela esaten digu; ALTZA, berriz, erri zarra. Lendabizi, 1845'garren urtean, Madril'etik Irun'era dijoan bide-zabalaren zatia eraiki zuten, eta, geroago, 1864'garren urtean, Norte'ko tren-bidea egiña izan zan.

Ezbear aundjak gertatu ziren, baita ugolde galantak. Pixkanaka, den dena etxez josi zuten. Sagardotegiak nolakoak ziren esaten digu. 1940'garren urtean ALTZA Donostia'k irentsi zuen.

Orrela, ALTZA'KO auzo galanta onetan Andoni Kortajarena'k euskal giroa, euskeraz ereiten du, baita gure nortasuna zuzpertzten.

Lendik, 1968'garren urtean asita, auzoko jaien egitarauan beti euskeraz idazten zuen.

Zeruko Argia delako aldizkarian, Basarri'k adoretuz, asi zen auzoko berriak agertzen; 1967-1972'garren urteko tarte ortan, eunen bat idazlan egin zituen.

Deia izparringian, ere, eundik gora idazlan argitaratu zizkioten 1985-1989 urteen tarte ortan.

Azkeneko aldi onetan, DIARIO VASCO egunkarian, 1989'garren urtetik 1995'garren urtea arte idatzi du; ba daramazki 201 idazlan argitaratuak. Diarjõ Vasco'n idazten asteko Jose Joakin Azurza'k bultzatu zuen.

Euskeraz idaztera zerek eragin zion, galdetu nion bein. Erantzuna ederra

eman zidan: "Lauburua karrketan itsuak ere ikusten dute, antzerkiak berriz euskal giroa zabaltzen di joaz, aberzale kutsoa egunero sendotu bearra dago euskera goratuaz". Bere buruari maiz esaten zion: "Gudari zera ta ortan jarraitu bear, euskeraz idazten".

Zartzaroa artzerakoan, euskera lantzea erabaki zuen. Ortarako Jon Onatibia'ren ikastaroetan ibilli zen.

Nor dugu Andoni Kortajarena Aginaga? Herrera'n, 1915'garren urtean jaio zen. Aita Asteasu'tarra zeukan, ama berriz Usurbilitarra. Zortzi seme-alaba euki zituzten. Lasalle'tarrekin ikasi zuen eta gazterik lanean asi.

Anaiarteko gudan, gudariekin joan zen, Saseta taldearekin. 1937'garren urtean, jorraillan, INTXORTA mendiko borrokan zauritu zuten, ezkerreko sordaldan; ABERRIAREN ALDE ODOLA IXURI ZUEN. Laredo'n atxiki zuten beste aldekoak eta iru urte, lau illabete ta bost egun beartutako lanetan eragin zioten (León, Teruel, Castellón).

1943'garren urtean, Juana Sarasti Oiartzunitar neskakin ezkondu zen; iru mutil eta neskatil bat dituzte, baita lau billoba.

Berrogeitabost urtekin ikastera PEÑA AKADEMIARA joan zen; geroztik "kontable" bezala lana egiten du.

Uxola il zenean, Euskerazaintza'koek aren ordezkoa bezala artu zuten eta bertan zintzo jarraitzen du.

Euskalerrri'ko giroa, gaur egun ez du geiegi maite: "Alderdiko aberzaleak euskera erderarekin aldatzen dute; politikoeak erderaz mintzo dire ta euskararen alde ez dute ardurarik".

Igande ta jai egunetan, Gurutze Done elizan, Intxaurrondo'n, euskal elizkizunetan, irakurle bezala arduratzen da; amabost urte daramazki laguntzen.


Irakurtzeko, euskerarik atsegiñena, baita ausnartzeko, Jesus Gaztañaga'rena deritzaio.

Len, aberriarengatik odola ixuri zuen eta orain atsa gartsuarekin, etengabe euskeraz idazten dabil, gudari bat bezala Euskadi zuzpertzeko.

Aldiro ematen ditu DIARIO VASCO izparringian, Euskerazaintza ta Saski-Ñaski aldizkarien berriak. Garbi asko agertzen ditu gure lanak.

Erabiltzen duen euskerak ba du txinparta, garbitasuna ta erro egokiak. Asko lantzen ditu lerroak. Orrelako lanarekin altxa dezake aberria.

LATXAGA




# URRATEGI'Z

## zenbait berri bertsoan...!

—I—

Urrategi'ko, Urrategi'ko  
bas-elizatxo txuria,  
zure barnean egin bait-zuan  
Ama Birjiña'k kabia...  
Kabi ortantxe geroztik degu  
gure Zaindari maitia,  
azkoitiarrok ain-maite degun  
Urrategi'ko MARIA...



—II—...1617

Milla seireun-da amazapia,  
zorioneko urtea,  
urte orretan jasoa da-ta  
gure AMAREN etxea...  
Irarraga'ko Franzisko jaunak,  
Azkoitia'ko semea,  
SORTZEZ-GARRIRI Ormola mendin  
eraikitako aterpea...

—III—...1555-VIII- 23

Aipa ditzagun, merezi du ta,  
gizon onen zenbiat berri,  
bera jaio zan urtea ere,  
paperak diote argi:  
Milla bosteun, berrogei-eta  
amabostean zan ori,  
Abuztuaren ogeitairuan,  
dana esateko garbi...1

—IV

Bere bataio santu artako  
agiri berak dionez:  
ezkontzat-kanpo jaiotako  
umetxo bat zan au, berez...  
Ez nuke onekin ezer-txarrikan  
esan nai nik, emen, nerez,  
agiri berak diona, baizik,  
egiztatu besterik ez...1

\_y\_

Orduko lege orrela zan-da,  
1 en-semea etxerako...!  
beste anaiak, munduan zear,  
labide bat billatzeko...  
Aipatu degun umetxo onek  
ez zuan obe izango...  
etxetik-kanpo ibilliko zan  
"xaxikoa" zanez, gero...

-VI-

Itxura danez aberastuta  
agertu zan, berriz, emen.  
berrogei-eta-amar urtekin  
ezkontzen degu ikusten...  
Milla seireun-da bostgarena zan,  
Azara'ko amalauen...  
Emazteztako artu zuana  
bera baño-zarrago zan...!

-VII-

Urte batzuek igaro-eta  
seme-alabarik gabe,  
pentsa-ta-pentsa, azken batean,  
erabaki zuan ere:  
Urrategi'ko bere lurretan,  
GUZTIZ-GARBIAREN alde,  
elizatxo bat eraitzea  
bera bizirik zan arte...

-VIII- ..1623-1-17

Elizatxoa jaso-ondoren  
sei urte igaro-eta,  
milla seireun-da ogetairun  
igo zitzaigun zerura.  
Urtarrillaren amazapi zan,  
neguko gau, illun-otza,  
irurogei-ta zazpi urtekin  
"elizakoak" artuta...!



-IX- ...1943

Utzi ditzagun lengo kontuak,  
aipa ditzagun gaurkoak,  
orain berrogei-eta-amaika  
urtetik onerakoak...  
Urrategi'ra lenengo aldiz  
igo nintzan urtekoak  
aztu eziñak ba-djra eta,  
neretzat oso gozoak...

-X-

Garaj artako Urretegi-ark  
ez zuan gaurkoren antzik,  
etxe-zar baten antzekoa zan  
elizatxoa kanpotik.  
Inguru-alde osoan ere  
ez zan etxe bat besterik...  
Ormola'rako bide-zidorrak...  
An ez zan beste biderik...

-XI-

Bakartasun ark egiten zuan  
Urrategi, maitagarri,  
gure Amatxo iripartsuren  
mendjgoi gaiñeko kabi...  
Argiak ere, illunak ziran,  
aitorketako egoki,  
barru-barruko kontu-itxillak  
nun esan obe Amari...?



-Xi (-


Bideko neke, auek kontuan,  
arritzeko gauza ez da,  
gaur aiña jende ez zala juten  
orduan Urrategi'ra...  
Bañan urtean ba-zan egun bat,  
Urrategi'ko eguna,  
Azkoitia'ko zar-gazte danak  
biltzen zituan jai ura...

-XIII-

Elizatikan Altzibarraño  
prozesioa egiñez...  
andikan berriz Urrategi'ra  
famili-osoak oñez...  
Zelai aietan sendi bakoitzak  
bere sua pizten zunez,  
Meza-ondoren salda artzeko  
ba'zan aukera an, ziñez...

—XIV-

Bazkal-ondoko elizkizuna  
bukatu-eta lenbaitlen,  
ontziak jaso, eta errira  
alkarrekin ziran jeisten...  
An ez zegoan eztabaidarik,  
anai ziraden sentitzen,  
egun osoa beren Amakin  
pozez igaro bait-zuten...



—XV-

Altzibarreko monja-komentun,  
ordua noiz etorri zai,  
ba'zuten danak zer-kontatuta,  
danak zeuden oso alai...  
lil unabarrez kanta-kantari,  
elizaruntz argi-argi,  
"agurra" entzun-da, pozez gaiñezka  
amai-emanaz festari...

—XVI— ...1950

Gauzak orduan onela ziran,  
baña ba'zan asmo berri...  
Leku batzutan egin zutena,  
zergatik ez, emen egi...?  
Urrategi'ko Ama Birgiña'k  
ba'zuan ainbat merezi,  
urre-gorritzko koroi eder bat  
nai zioten burun jarri...

—XVII—

Antolatzaillen asmo eder au  
pozik artu zun erriak,  
Eta etxeko zoko guztiak  
miatzen emakumeak...  
Ezer-ederrik billa ezkeru  
pozikan, baj, etxekoak...  
urre-gorritzko koroi orretan  
parte nai zuten dan-danak...

—XVIII

Eldu zan ontan, aukeratako  
egun alai-ta ederra,  
milla beatzi-**euneko** eta  
berrogei-eta-amarra...  
Iraillaren amazapi zan,  
ezin aztu egun ura,  
Urrategi'ko Ama Birgiña  
erregiña koroitua...



—XIX—

Onen-aurretik, Parrokian zan  
Urrategi'ko irudia,  
nobena aundi eder bateko  
Ama gozo ta ezta...  
Izlari danak erriko ziran,  
ura zan ura grazia,  
Egun aundian itz egin zuna  
Don Jose gure gotzaia...

Ona emen izlarien zerrenda: -  
Ignacio M. Mancisider. "Amorketa" Jesus'en lagundikoa.  
José A. Garata. "Urkiolagi". Franzizkotarra.  
Jesus Aurtxoren Eulalio. "Ipintze" karmeldarra.  
Jose L. Bastarrica. "Dantzari". salesianoa.  
Anacleto Larrañaga. "Goena". Pasiotarra.  
Jose Gogorza. "Txupe". Betharramieta.  
Jesus Bedoña. Kaputxinoa.  
Luis Egiño Trecu. "Kamiño" Apaiza.

—XX—

Azkoiti ez da berriro iñoiz  
ordun bezela jantziko,  
girnaldia zuri, millaka lore  
kale danak edertzeko...  
Elude batek ez zituan, ez,  
ederragoak utziko...!  
Kanpoko danak arriturikan  
geldi ziran beterako...!



—XXI

Etorri zan ba, Urrategi'ko  
Amaren egun aundia,  
erriko plazan koroatua  
izango zanaren jaia...  
Udaletxeko balkoian zegon  
apain-apain idatzia  
bazter guztitik ikusten zan au:  
ONA, AMA, ZURE ERRIA...!



—XXII-

Prozesioan ekarri zuten  
gure Ama' ren irudi,  
bere ondoren, azpil batean,  
koro berri dizdizari...  
Jendetza arek, arin bete zun  
erriko plaza osoki,  
milla-ta-milla asko ziran-da  
fedez ziranak etorri...

—XXIII

Arratsaldeko bostak ziraden,  
soiñu ta kantu artean,  
Urrategi'ko gure Amatxo  
koroatu zutenean...  
Donostia'ko lenen gotzaiak  
Santander-kokin batean  
elizkizun au burututzeko  
zoriona zuten izan...

Donosti'ko len-gotzai au Jaime Font Andreu izan zan, Santan-  
derikoa, berriz, Jose Eginu Treku azkoitiarra. Roke Osoro zan  
orduan bertako erretore ta Roke Aranbarri Epelde bertako alka-  
tea.

—XXIV

Andik bi urtera, Abuztu'k amar  
zalbaldu zuten bidea,  
eta geroztik Urrategi'ra  
erruz asi zan jendea...  
Meza entzun-da, Amatxo lagun,  
igarotzeko igandea,  
bestalde berriz, ezkontza-bidez  
bat-egiteko bitizta...

Bertako kapellau zan Esteban Abarizketa azkoitiarrari zor zaio  
batez ere, errepide au.  
1952-VIII-10'eanean iriki zan bide au.

-XXV-

Urrategi'ko auzo txikia  
osorik bait-zan aldatu,  
kanpatorre bat jaso zuten-da  
plaza eder bat zabaldu...  
Bertako umentzat eskola berri,  
jolas-egiteko leku,  
danetarikan izatearren  
jaketxe bat ere ba'du...!

-XXVI-

Euskal-erriko bas-elizatxoak  
asko ta eder izanik,  
Azkoitia'ko onek ordea,  
barruz ez du parekorik...  
Garbi ta txukun, argiz betea,  
lore ederrez jantzirik,  
Ama-Birjiña ber-bera ere  
irripartsu aldaretik...!

Jesus Mari Etxezarreta izan zan bertako kapellau kargua izan  
zuan azken apaiza.

Parrokiko apaizak betetzen dute geroztik, eta txandaka, egiteko  
au.

Jesus Mari Etxezarreta orri zor zaio, ala ere, Urrategi'ko eliza-  
txoaren barruko edertasun ori...

## AGURRA

Agur Urrategi'ko  
Birjiña Maria,  
orra emen aurrean  
Azkoitiko erria. (bitan)

Zuren maitatzalleen  
artean gaitean,  
alai zure amorez  
uzteko bizia. (bitan)

Pozik etorri, gera,  
Ama biotz bera  
gure biotz ta anima  
zuri eskeintzera

Bada fedez sarturik  
zure mantupean  
errez zure bitartez  
zerurako gera. (bitan)

Agur, Ama gozo  
ta errukiz betea

Gure Ama  
izan zaitea...

ANASTASIO ALBIZU AYERDI  
CARMELO ALBERDI ARIZMENDI'ren marrazkiak



# ADITZA INAZIO LARRAMENDI'REN OLERKIETAN

Inazio Larramendi olerkaria Naparra dugu. Bera delako errian jaio ta il zen (1874-1960). Gurasoak Gipuzkoa'tarrak zituen, ezpartzin egilleak ziren. Gure olerkariak, il ariio, lanbide ortan iraun zuen.

Liburuxka batean (1960) agertu zituen bere lan guztiak; amabost olerki ta 708 lerro neurtuak (1).

Nolako aditza darabilkin jakitea, gure asmoa da. Bera'n, Ñaparroa'ko Iparaldean sartaldera, nolako aditza erabiltzen duten, 1960'garren urteko inguruan, aukera ematen digu. Ortzen ikusten dugu zenbateranoko aditza erabili a dagon, era ta gaiak barnean gelditzen direla. Orrekin neurri bat artzen dugu.

Jolastutako aditza agertuko dut bakarrik; lendabizi adjtz laguntzalea alda-koia, ondotik aditz bilduak. Azkenean, aditza laguntzalea aldakaitza dator. Gero, berriz oarrak.

Aditzaren era bakoitza, zenbaki batekin lagundua izango da; olerkietako orrialdearen zenbakia ematen du.

## ADITZA LAGUNTZAILEA ALDAKOAIA

### ÑOR(3)-NORK, ORAIN GARAI SOILA

- . det /4-dedan /5-baidet /7-eztut /8-duten /8-badet /17-badela /18
- . du /13
- . ditut /18-battu /29
- . degu /6-badugu /30-dugu /31
- . aldezuna /4-eztezu /4-ezteuz /5-dezu /5-duzu /10
- . dezute /14
- . ditugu /24
- . dituzu /11
- . dute /7-eztute /9

### ÑOR-NORI-NORK, ORAIN GARAI SOILA

- . dizkit /7

---

(1) Larramendi'tar Inaki, OLERKIAK, Icharopena, Zarauz, 1960.

- . dizkat /24
- . diyot /7
- . dizut /8-dizkitzut /11
- . dio /13-diyot /13
- . digu /18
- . eztizutet /20
- . badiezu /35
- . diyet /18

#### NOR(1-2)-NORK, ORAIN GARAI SOILA

- . banazu /8
- . naute /17-nautenak /19
- . zaitut /11
- . gaitu /19
- . gaituzte /24

#### NOR(3)-NORK, LEN GARAI SOLA

- . nuan /16-nun /28
- . zuen /9-zuan /17
- . nituen /11-nituan /19
- . zuten /9-zituen /16-zituan /16
- . zituzten /27

#### NOR-NORI-NORK, LEN GARAI SOILA

- . niyoten /28
- . niyen /26
- . zioten /9-ziyoten /14-ziyotengan /26

#### NOR(3)-NORK, GURE ERAKO ORAIN

- . dezagun /6
- . ditzagun /19

#### NOR-NORI-NORK, GURE ERAKO ORAIN

- . ditala(jarrai) /7
- . dizazun /11
- . (lagun) deiela /33

#### NOR(3)-NORK, GURA ERAKO LEN

- . zezaten /26

#### AGINTZEKO ERA

- . ez nazazU /3-nazazu /6
- . zazu /10
- . agurzazute /14
- . zazute /28
- . zaidazu /17
- . ditzazu /11

. bezate /31

. nazkitzu /10

## ADITZ BILDUAK ALDAKOTIAK

Berezko aditz bildu batzuek agertzen zaizkigu. Abek dire: YAKIN, EGIN, JARDUN, EUKI, EKARRI, ERAMAN, EMAN.

### YAKIN

. badakit /19

bai-takj /10-dakj /16-eztakj /32

eztakite

. zekiyen /10

. zekiten /27

### EGIN

. dagio /13

egiyozu /25

### TORIZU

Laburpen bat dela deritzait. "ARTU ORI" esalditik datorrela diot. Itz batekin, bi laburtzen ditu.

### JARDUN

. ziarduten /13

### EUKI

. daukat /16

. daukaten /13

. dauka /13

. daukagu-dautugu /18

dauzkagu/21

eztaukazu /25

. dauzkazu /35

. badaukazute /26

. zeukaten /14

. bazenkatela /26

### ERAMAN

. zeramakiten /27

### EMAN

. ernaeza /35

### EKARRI

. dakarren /24

zekarkiten /27

## ADITZA LAGUNTZAILEA ALDAKAITZA

### NOR, ORAIN GARAI SOILA

- . naz /3-naizela /5-naiz /6-elnaz /7-banaz /7-ote naizen /7
- . zerala /4-zera /35
- ezta /3-bada /4-da /5-dela /8-den /10-eztenak /32
- geraden /5-gera /19-bagara /30
- . dira /19-dire /30

### NOR-NORI, ORAIN GARAI SOILA

- zait /5-zaizkidan /26
- . zayo /29
- . zaigu /18-bazaigu /19-zaizkigun /24

### NOR, LEN GARAI SOILA

- . nitzan /18-nitzen /29
- . baitzen /4-zen /4-zela /10-zan /14-etzan /18
- . ziren /8-ziran /14-ziranean /15-ziraden /27

### NOR, ORAIN GURA ERA

- nadiyen /17
- . dedin /28
- gaitezen /5-gaitezela /18-gattezen /32

### BALDINTZAKO ERA

- . bagiñake /21

### AGINTZEKO ERA

- . zaite /4-zatetz /10
- gaitetz /6-gaitezen /10
- bedi /23

## ADITZ BILDUAK ALDAKAITZAK

Aditz bildu aldakaitzak ikusi ditugunak abek dire: EGON, ETORRI, IBILLI, JOAN.

### EGON

- . nago /6-nagoan /15
- . dago /12
- . zaude /4-zauden /15
- zagozten /18
- dagozi /32-daude /13
  
- . zegoen /12-zegoan /14-zegola /15-zegon /18
- . zeuden /14
  
- zaudete /20

## ETORRI

datorkit /19  
atozte /32

## IBILLI

. gabiltz /30  
zabiltz /24  
zabiltzan /28  
. zabiltzatela /19

## JOAN

. baduakigu /19

## OAR NAGUSIAK

Aditzaren garaiak erabiliak oso gutxi dire, ikusten dugunez; ia beti errexe-nak, izatezko garaikoak.

Lapurdi ta Gipuzkoa'ko aditzaren jokabideak nasten ditu: DET-DUT, NUEN-ÑUAN bata bestearen ondoan erabilliaz. Orrek esan nai du, ez dela euskara ain landua, oso errikoa baizik, aoz ikasia, belarriz artua.

Erri batzuetan erabiltzen duten aditz soil eta txiroa ortxen ikusten da. Beste aldetik, olerki batzuek egiteko, aditz askoren bearrik ez. Berri au jakingarria da.

Aditzaren jokabidea ez dauka ondo tinkatua. Garai batzuek ez ditu ondo erabiltzen. Ikus eredu batzuek:

EMAN NAZKITZU /10  
EKARRI NAUTE BERRIA /16

Bi eredu oietan, NOR-NORI-NORK'en jokabidea erabili bearko luke. Joskera aldetik ba dago or utsunea.

Baldintzako garaian, eredu bat ikusi dugu, ez ain zuzen idatzia: BAGIÑAKE /21. Berez -ba ez di joa -KE orrekin batean. Erriak toki askotan, zoritxarrez, elkartuak erabiltzen ditu.

Beste joka-itza nundik ote dauka ateria?: "DAUTUGU /18". "DAUKAGU'-KIN" zerikusi aundia du.

"ERRAN", asko erabiltzen du, baita noizbeinka "ESAN":

"ERRATEN" /8  
"ESATEN DIGU" /18

NOR-NORI-NORK jokabidetan, -i- izkiaren atzetik, -y- asko sartzen du: diyot /7, diyo /13, diyet /18.

## ERASKINA: IZKUNTZAREN ALDERDI ONAK

Joskera errikoa du, itz sendoak, egokiak, erriak ondo ta berealaxe ulertzen ditunak. Ara eredu batzuek:

"(euskara) ez dakite ez nondik ez nola etorriya" /3



"Erakuts i euskera  
Asko bada obe" /4

"Izan Jaungoiko-zale  
Ta euskaldun garbiya" /5

"Esan ni naiz euskalduna" /6

"Etzuten noski eben artian  
Xoruena berexiko" /6

Bera'ko euskara goxua, biotzakin ikutua, berealaxe nabaritzen da. Ikus eredu batzuek:

"Bera'ko erriya pollita dela  
Eztut guttitan erratten" /8

"Etorri zattez egun batian  
xoko on au ikustera  
ibilli-aldi bat eginen dugu  
Erriyan lau aldetara  
Begi zabalez begitu ongi  
Alde bat eta bertzera  
Arriturikan erranen duzu  
¡Zeñen pollitta den Bera!" /10

Itz batzuen otsak eta atsaren ikutuak, baita laburpenak Bera'koak dire. Ereduta gai batzuek esaten digute naikoa:

"ojkin" /8

"eben artian" /8

"xoruena berexiko" /8

"zakittena" /9

"Lore artian zegozten" /9

"yuaten ziren" /9-"Yuateko" /9-"Yuan" /9

"Asnaz tokiyak" /9

"Itzultzen ziren itxera" /9

"Errana" /9

"Biño" /9 (bano)

"Lana azkarki" /10

"Paratu nauzu" /10

"Gauza unekin" /10

"Begitu zuten" /14

"Geren erriko festetan" /21

Ba daude, ere, itzak, indar aundikoak eta berexi berexiak:

"elea" /3 "Iapaitza" /4, (landare bat)

"txikitandikan" /5

"gaizetsi" /5

"Erlas-txoriyak" /26, (Enaran ordez)

Erriko izkuntzan ba daude beti bitxi arrigarriak, euskal arnasaren jatorrizko otsak.

## AMAIA

Luis Luziano Bonaparte'k, Bera'ko euskara, 1863'garren urteko mapan, "ALTO NAVARRO SEPTENTRIONAL" delako euskalkian sartzen du.

Inazjo Larramendí'ren euskara sar al dezakegu maila ortan? Soro ortan sartzeko ez da najkoa Bera'n jaioa izatea ta bizitzea.

Garrantzi aundiko gauza bat ezin dugu aztu: gurasoak Gipuzkoa'rak zituen. Orrek asko esan nai du. Gañera beti gurasoekin bizi zen. Gure idazlearen euskara Gipuzkoa'koarekin oso kutsatua izango zela, aitortu bear.

"Bera'n jaio delata", orrekin ez dago naikoa esana, kultur soro berdintsu batean sartzeko. Ortxen daukagu Aita Erroman Bera'tarraren eredua: Bera'n jaioa ta azia, baino Sabino-Aranaren arauen jarraitzalea. Euskal aditza, ondo beste nunbait ikasi zuen. Ori, bai ongi agertzen dela idazkietan.

Bera'ko euskara nolakoa den jakiteko, lan geiago egin bear da;ziur asko aozko euskara, baserrietan jasoaz. Gure lan au, urrats bat da, beste lanekin egiztaratu bear dena. Urrats bat bakarrik eman dugu. Ikerketaren bidea luzea da.

LATXAGA



# OIARTZUN'GO SEME BAT ZARAGOZA'N IKASLE TA MAIXU

Yon adiskidea, alaberrak eraman zigunetik, bere lagun zirenak, bakoitzak beraren ikuspegitik, idazlan ederretan, eta goraltza egoki ta burutsukin, eman djote azken-agurra.

Zai-zai egondu naiz, idazten oitura dun adiskideen batek, YON ikasle zan garaiko berririk ematen ote zigun, baiña oraindaño, denak mutu daude.

Luma erabiltzen ez det oitura aundirik, baiña onela nion nere baitan: "YON zanak aspertu gabe burutu zitun lanak, eta Zaragoza'n igaro ginduzen urte aietako gertaera batzuk, ez dituk, aztuta zokoan uztekoak". Ta buruapen orrek pake-onik ez dit eman, Ierro auek zirri-borrotu arte.

YON'ek bere bizitza latzean, iragan zitun urteetan: eraginkor, onurrakor lasai te alaienak, izango zitun noski, Zaragoza'ko Ikastola Nagusian igaroak. Alegia, ikasle bezela, ta lagunuen adiskide ta maixu izanez, eskeiñi zituanak.

Zergaitik aren ingurura bildu giñanok —ta au neregatik diot— oraindaño ez degu izan, eta onezkero mundu naasi onek, ez digu aldi oberik eskeiñiko.

Asi nadin bada, urte aietako gertakizun batzuen berri agertzen:

Nasketa aundiko aldiak, geiegi ezagutu ditugu, zori-txarrez, gure bizialdi labur onetan. Baiña giro biurrienetako bat izango zan, gure ikastaroak egin bearra gertatu zitzaigun garai artakoa.

Erkala edo Errepublika, ate-joka ari zala, gauetik-goizera ba-zetorrela bala-bala ari zan jende artean; eta asko urduri zeuden, iristen bazan, ze gerta zeik-kean, igarri eziñik.

Burruka bizian langilleak ere, ta txantxetakoak etziran, orduan, Zaragoza'ko langileak antolatzen zituzten oporraldi ta matxinadak.

Politikoak beti oi duten bezela, beren xardiñari txingarra nola inguratuko, Besteen iritzi ta jokabideak beztu bear, eurenak zuritu ta egiztatuko ba-zituzten.

Ikasleen artean berriz, nolako naasketak, noiz-nai zalapartak eta oporal-diak. Gorriak eta gogorak alde batetik, eta eian arpegi emanaz, txapelgorriak eta alkandora-urdiñak, lengoak bezain egoskor eta elkorrak.

Etorri zan Errepublika uste zuten bezela, baiña berealako itxaropen ta alai-tazunak bere goraltzakin batera, laister iges egin zuten, Madrid'en ikastola, lekaide-etxeak eta elizak erre zituztela-ta.

Ikasleak ere geroz eta gogorrago ekin zioten elkarri; onoko auek atorra gorriak, urrengo aiek ikurrin beltz-gorriak agertzen zituztenak, arontzago alkandora-urdiñak, eta denekin eraso bizian, txapel-gorriak. Ta nola batzuk ala besteak, elkarrekin pakean bizitzeko asmorik etzuten azaltzen.

Naspilla orren saretan, Euskalerritik joandako ikasle asko geuden, nora jo ez gendikigula. Ikastera bialiak giñan, gurasoak euren neke ta izerdiakin, aurre-rako bidean laguntzen ziguten. Baiña, urte larri aietan, zenbat "pipar" eta eskola-uzte, geienetan nai ez genduela.

Bada-ezpadako gara; artan, Oiartzunigo mutil gazte bat iritxi zan Zaragoza-ra, gu bezelaxe ikasketak egitera.

Gazte onek lege-gizon izateko asmoa zekarren, eta OÑATIBIA tar YON —ala zun deitura— lagun atsegiña ta kristau zintzo zana, ordurako, euskal gaietan maixu bat gendun.

Buru argikoa zan aldetik, eta jatortasuna gaiñezka azaltzen zigulako, berea-la zabaldu zan aren entzutea, eusko-ikasleen artean. Ta ekaitz aldian babeseta billatzen dan bezela, aren inguruan asi giñan biltzen.

Ezagutu ta bereala, erakutsi au entzun genun bere agotik: "Gure-gureak ditugun oitura, jakintza ta jolasak ikasiaz, joango gaituk bide onetik, onen beste iritzi makur eta naastuen artean".

YON'en orduko asmo ta nairik nagusiena au zan: euskera zekitenak apaindu, etzekitenak ikasi, eta elkartzen giñanean itzegin. Bai ta gure edesti edo kondairaz zerbait jabetu giñan eta ondoren, euskal-abesti gogoak eta dantza ariñak ikasi ta zabaltzea nai zun.

Ames genduen, aurrera eramango ba-zan, alkarrengana bildu ta alorrari ekin bearra zegon, eta ortarako biltokia bear.

Jaio-berria genduen elkarte arren lenengo kabia ta babeseta, Erronkari'tar zaldun baten etxean izan gendun. Zaldun au ESTORNES jauna zan, naparra.

Bere bizilekua, Zaragoza'n Alfonso kalean zun, eta gure etxe bezela eskeiñi zigun. Geroztik, gizon jator ura, guraso ordekotzat euki gendun.

Bertako gela-nagusian, eman genien asera ikastaldiei. YON zanak aspertu gabe ta egonarriz beteta, euskal-kanta alai ta ederrak erakutsi zizkigun.

Iraupen aundi batez, elkarrengana biltzen giñan, illuntza oro. Ta arfan arian, menderatzen joan giñan ez-ezagun ginduzen abestiak, eta batera abesten, bai ikasi ere.

Abestiak erakusten saiatu ondoren, artuko zun bere txistua, ta nolako saioak jotzen zitun, doñu zallanak eta gozoenak menderatu arte.

Abestiak eta txistu saioak, gogo zuan bezela adierazten zirela jabetu zanean, nolako atsegiña berea.

Gela barnean abesteko etzirela ikasiak, gogoratuz, ta "Euskera ialgi aadikantpora" "oroituaz, Aragoi irratiko ateak iriki ondoren, abesti ta txistu, salo eder bat eman genduen bertan.

Entzuleen gogoko izandu zala irrati saio au, ta arrera onez artu zutela ikusi zunean, eta geldurre gutxikoa zalako, egona etzun gogoko, Baiña egiñean neka-eziña zalako, berealako batean, dantzan jarri ginduzen danok.

Asmo au azaldu zigunetik, ekin genion dantzak ikasteari. Gogoko zitzaigun lana gendulako, ta ogei urtetako sasoiak eraginda, txisturen soñuak lagunduta, pizkor asi giñan salto ta brinkoak ematen.

Onela, aste batean dantzaldi batez jabetu, urrengoan ua berritu ta beste bat ikasi. Saiaketa luze baten ondoren, dantzaldi aiek buruan-artu ta menderatzen joan giñan, izerdi batzuk goiti-beti.

YON'en iritzian, jaialdiak osotu ta dotoretzeko, bearrezko ornen zan ezpata-dantzari talde on bat tajutzea. Ta aleginduz, salo ta izerdi, ari zan mamitzen aurretik amestu zuna.

Maixu atsegin baten erakutsiak, errexago sartzen dira buruan. Ta garai artako ikaste-lanak, ematen zizkiguten nekeen erdian, buru-auste aien arigarri bat besterik etzan, euskal-dantza aietaz jabetzea. Ta gure soiñ-gazteak zailtzeko ta bizkortzeko ariketarik egokiena.

Dantzaldi guztiak, bizi, arin, batera, egiten, erakutsi zigunean, bere baitan onela esango zun nonbait: "Euskera ialgi adi Plazara".

Orduantxe zuzendu zigun, egun da berealdian, iñongo ikasle soillak, erandu duten pestarik ederrena: ARAGONES pelota-lekuko jaialdia.

Pelota-leku au, egin berria zan, orduko onentxoan artean zeukaten, eta zestozko pelotari onenak, Guillermo, Blenner, Urizar eta abar ikusi zituzten bertan jolasten. Nun izango, ta antxe moldatu zigun jaialdi-apaiñ ura.

Bertako aulkiak, beitik asi ta sapairano bete ziran. Jai-goiz eder artan, asko ziran zer ikusiko joanak: Aragoi aldean bizi ziran euskeldunak, egunkarietako albistariak, ikasleek ezin konta ala, tartean bai irakasle batzuk ere. Talde aundia zutik egondu zana, exerlekurik etzegolako.

Abestaldi eder eta alai batekin eman genion asera. Abesti bakoitzaren ondoren, nolako txaloak, eta batek baiño geiagok, izan zuten bigarren aldiz entzuteko eskabidea.

Jendetza aren aurrean, txistulariak bete zuten bigarren atala. OÑATIBIA anayak, YON, JOXE ta IMANOL'ek, goimallako txistulariak zirela erakutsi zuten. Zein soiñu alaiak txistu aietatik irtenak, ainbat txalotu zituztenean.

Billera jator ari, dantzariak eman genion azkena. Txistulariak biribilketa alai bat joaz, iden ziran aurrea. Ezpatadantzari taldea ondoren, eta irundar gazte lerdan bat, jarri zijoakigun, gure IKURRIÑA airoso eramanaz.

Jolas-lekura azaldu giñanetik, ixjldu gabeko txalo eraso entzun gendun. Ikusle geienak beiñere olakorik ikusi gabeak, txoraturik gelditu ziran, azalpen ua zagi-dantzarekin amaitu gendun arte. Dantzaldi bakoitzaren ondoren, txalo joaz eskuak ondo berotuak ba-zituzten ere; azken gabeko gorak eta txaloak, bukatzean jo zizkigutenak.

Erbestean bakarrjk azaltzeko, ez ginduzen ikasi gure, txistu, dantza, abestiak; bai-ta gure aberritarren aurrean erakusteko, ere. Ta euskal oiturak eta jakintza, ezagutzen etzituzten aietara ere, iritxi zitezen.

Erabaki au, pelota-lekuko pesta eder aren ondorioa zan. Entzute aundi iritxi zun jaialdi onek, batetik apañña, alai ta ederra gertatu zalako, batez ere, ikasle sail-soillak ziralako, jai guzia erandu zutenak.

YON'ek "Euskera abil mundu guzira" gogoan zula, ta NAPARROA'n, Erriberako errietan azalduak eta jaialdiak egiteko erabakia artu zunetik, ortarako bearko ziran prestaerak egiten asi zan.

Ibillaldia tajutu, ta igande goiz baten, abiatu giñan Zaragoza'tik Korella alde- ra. Antziñeko erri eder artan, euzkotar bezela gure jokabidea ornatzen zuan talde bat ba-zan. Ta aien laugtza ta eragiñakin artu genduen erribera'ko bidea.

Erri artan txistuaren soiñurik sekulan etzan entzun, ta antxe egin gendun sarrera, biribilketa alai baten doñuan. Aseran, bildur piskabat izandu arren, ango jendeak eman zjgutuen arrera onak, bereala lasaitu ginduzen.

Autobusari oker bat gertatu zitzaiolako, nal baiño beranduago iritxi giñan. Bazkal-aurretik illuntza artean, inolako egun pozgarria an igaroal.

Jaialdia, giza-mordoska aundi baten aurrean eman genduen, eta ikusi zuten denak, gogatsu artu ta'goratu zuten pésta ura. Ori zala-ta, erri artako ate asko zabalik gelditu ziran ordutik, gure taldearentzat..

Gure jokaera, noiz-nai ta beti atsegiñez azaltzea ba-zan ere, egun artako gertaera gozo orrek, poz aundi bat sortu zigun. Ta ezagun eta lagun jator asko utzi genduzela bertan, iruditu zitzaigun, iñularrean berriro Zaragoza'ra itzuli giñanean.

Orduko giro gozakaitz artan, EUSKO IKASLEEN ELKARTEAK, eginkizun geiago ere artu zitun bere ardurapean, ta bearrean aurkitzen ziren ikasleei laguntzea, zan bere aurreneko alegiña.

Ikasten ari ziran gasteen artean, eta bearrean zanari laguntzeko, aurretik, etzan oraingo "colectivo", "coordinadora" izen ponpoxoen bearrik. Ikasle soilak giñen, eusko-lurrean sortuak, eta erbesteko burutapen maltzurak alde batera utzi, ta eusko-gogoan irautera beartuak.

Kanpokoen esanera makurtzen ez giñalako, agintzen zuten alderdikoak arropuztuta: "vaticanista, burutapen-zaarrekoak (anticuario), atzerakoi (retrógado), koba-gizonak (cavernícolas)", deitzen ziguten, asmo zitalekin.

Beste aldekoak ziran berriz andik-onerakoak, izengoitika ipintzen: gorriak, abendazaleak (razista), banakatzalleak (separatista); jaurtitzen zizkiguten, aurpegira, lore eder ta usaitu bezela.

Baiña gure iritzietatik saiestu gabe irauteko era egokia izan genuen sasoi artan. Ta geroago ere, ta eraso gogorragoan, jokabide berdiña ikusarazi genuen orduko geionok.

Gaur bezelaxe, orduan ere, ikasle guziak ez giñan iritzi berdiñekoak. Baziran orduan ere, erbestekoak jotzen zuten soiñuan dantzatzen ziranak. Ta gure erritar askok, beren etxea zapuztu ta auzora begira, noiz arte jarraituko duten, ez jakin.

Urte aietan, ardurarik aundienetako bat merezi izan zigun egitekoa, "EUSKO IKASTOLA NAGUSIAREN ALDE" lan egitea izan genuen.

Goi-mallako ikastaldiak egiteko asmoa gendun euskeldunok, nai ta nai ez, erbesteko bidea artu bearrean arkitzen giñen.

Jokaera makurra nola zuzendu, auxe zan gure Elkartearen elburu bat.

Nai genduena auxe zan, guk zoritxarrez, erbestean egin bear izan genituen ikastaldiak, ondoren zetozenak, Euskalerrian egiteko aukera izan zezatela; zuzenbideak ala agintzen zuelako.

Eusko ikasleen aurreneko batzar orokorra, udako oporraldietan, BERGARA'n antolatu zuten. Meza-Nagusi eder bat entzun da gero, Lojendio jauna maiburu zala, ikasle talde aundi bat, bildu giñan bertan.

Antxe aztertu ziran, IKASTOLA NAGUSIA (iz-totelen mintzaeran, gaur **Unibersitate**a deitua) iristeko lanak, nola edkartu, erandu ta aurrera eraman.

Euskalerriko etorkizunarentzat zer-ikusi aundia zuan batzar au antolatzen, aspertu gabe alegindu ziran aietako bat, gure lagun YON izan zan.

Euskera maitatzea biotzean zeraman, eta izkuntzaren erroetan billatuz gure mintzaera zarraren muiñ betirakoa arkitu zun.

Agitan maite zulako, erraz eta garbi erabiltzen ikasi zun. Euskera, ikas-gaiak erabiltzeko eran egokitu nai zun, nola izketan ala idazlanean ta edozertarako edo noranairako gai izan zedin antolatu.

Aren mintzoak, eta orañaldiko ikasi izenekoen euskera orrek, ez dute iñongo antzik. Bertan agiri da, Euskeraren ajola aundirik ez dute batzuk. Ta beroien gogoeta zirtzillak zabaltzeko, tresna bat besterik ez dutela.

Etzun begi-onez ikusten, ikaste-lanetan zabartu ta bere gurasoen neke ta izerdiari, iruzur egiten zion gaztea. Bakoitza bere ikastaroan alegintzea, zan aren naia, gaur edo biar, bere erriaren laguntzalle on bat izateko.

Askatasun-eguzkiak, noiz-beinka, argi-printza batzuk bialtzen zizkiun baiña laño tontor beltzak, itzaltzen ziguten sarritan aren dizdira. Gaiñera zetorkigun ekaitz bildurgarria, aderazi nai baligute bezela.

Garai artako gizonik argienak-gaur-egun, aztu ta zokoratuak, beztuak izan ez direnak-laño beltz oiek nundik aidatu ta uxatuko ibilli ziran. Eta gure erri, jakintza, ta izkuntzaren alde, egin zituzten langire sakon eta luzaroan jarraituak, ditugu, gizon zintzo aien ekintzaren ezaugarri.

Geroak azaldu zigun antzera, laiño beltz aiek, aurrerako ta ikarakorrako

egertu ziran, ta Euskadi gañera sua ta arria eraso zuten arte, etziran aldendu. Ta gure gaztetako asmo zuzen ta amets guziak, ezereztu zizkiguten.

Munduan ez da iñor esan dezakenik, gudate madarikatu ura, garai artako gazteak sortua izandu zanik. Baiña gaztedi arek ordaindu zitun geienbat, lixkar artatik sortu ziran: maltzurkeri, gaiztakeri, zauri ta eriotzak.

Su kixkalgarrri ua piztu zutenak, azpikeriz, illunpeko ariak mugitzen zituzten zomorroak izandu ziran-gaur bezelaxe-. Ta gaztedi jator arren bizkarretik ta aien odola txurruptuz, aginte ederrak eskuratu ta ogasun ugariak pillatuz, bikain gizenduak, ba-ziran ugari.

YON'ek ondo zekizkian ordurako, "Karlos Xetimo'ren" guda prestatzen ari ziranen aurka, XENPELAR argiak, jarri zituan bertso gogoangarri aiek.

Beti, auziak onez-onean konpontze aldekoa zan, ta ez gogorkeriz, Garbi igartzen bai-zion, anai arteko gerrak zekarten ondoren mingarria.

Entzuna dut, etxera itzuli ezkerro bete zuan irakaste-lan sakon eta zabala. Ta ariketa eder onen bidez, ikasle zituena, euskal-jakite mamitsua erakutsiko zien; guri, aspaldi artan bezela.

Begiek iriki zizkien, garbi adieraziz, azti ibiltzeko, malizian jostatuz, ta gazteen siñes-beratasuna lagun adula, erbesteko bulko ta maltzurkeriak, erakusten alegintzan diren oiekin.

Bearrean zanari, gogoz eskeiñi ta borondate onarekin emango zion lagun-tza. Utsean eta iñoren ixillik, izan ere ondo ikasi baitzun: "Eskubjak emana, ezkerak ez duela zertan jakiñik".

Bizirik genuela, azkiro onean bezela txarrean, erriaren ona nundik billatuko, alegindu zitzaigun.

Ta aren aginkizunik ederrena, gaztediari ustelik gabeko yakintza erakustea, izandu zan, nere iritzian.

Gure aldikoentzat bezela, oraiñaldiko gazteentzat: lagun jator, maixu eraginkor, eta eredu bizi, eskeiñi zitzaigun.

YOÑ adiskide, guztiontzat zenduen leialtasuna, ta batez-ere, gazteetan azi ona ereiten egiñalak egin zinduzuelako, ESPIRITU SAÑTUAK oparo emango zizun. Bere zintzoei agindutako sari berdingabea: BETIERAKO POZA.

\*

## **GERTATU EDO ANECDOTA BEZELA**

Zaragoza'ko eusko-ikasleen elkarteko ereserki bezela: "OÑTZI AUL BAT BATEAN", abestia aukeratu gendun. Goibelxamarra iñondik ere abesti ori, ¿garai arek ala eskatzen zuelako ote? ¡Auskalo!

Abestiak eta dantzaldiak berritu ondoren, maiz abestu oi genuen kanta ori. Baiña, Urrutxua gernikatar gazte sendoa, zai-zai egongo zan, abesti ori noiz bulatuko: "Ni naiz Kapitan pilotu"ri ekiteko; arek "Kapitanarena", egingo zizun beti, ta guk erantzunez, alkarri laguntzen genion, ardalla jator batean.

Goibeltasunak urrutira uxatuz, gure gozamenak etzuen berdiñik. Izan ere ikasketak sortzen zizkiguten lan astunen erdian, atsedean onurakorra, gertatzen zitzaigun, alditxo ura.

"Aragonés" pelota-lekura, jaialdia ikustera joan zan berri-emale batek egunkarira bialia zun lanari, iritzi onekin ematen zion azkena:

"El País Vasco-Navarro, puede sentirse esperanzado, con una juventud que tan admirablemente sabe compaginar, sus estudios universitarios, con actos culturales del relieve y belleza artística, como el que tuvimos la grata sorpresa de presenciar en el Frontón Aragonés".

Igande goiz bat zan ta azkiro ederrekoa gañera, bus nagusi ta zaar baten barruan, ta espartzin berri, txuri ta apaiñak jantzita, mutil koxkor batzuen antzera alai ta abeslari CORELLA'rako bidea artu gendunean.

Gure pozak, ordea, —beartsuen etxeokoren irudira— aldi motxean iraun zigun. Ogeita hamar kilometro etzituen egingo noski, PEDROLA'ko erri inguruan, bus aul eta urratu ura, erabat nekaturik, asto zar baten antzera, ez aurrera ta ez atzera, bertan-bego, gelditu zitzaigunean.

Gidariak bere nagusiekin itzegin ondorenean, adjerazi zigunez, ordezkioa bialia ta etorri arte, orduta erdi gutxienez itxoin bearko genduen.

Ori jakitean garbi oartu giñen, etzegola Corella'ra iristerik, asmo genduen bezela, amaiketako Meza Santua an bertan abestutzeko.

Garai artako euskal-ikasle geienok, eta ez daukat aitortzeko iñongo lotsarik, igandero, Eleiz Amaren agindua zintzo bete oi genduen.

Gañera, garai aietan etzan orain dagon aukera ta errextasunik, bezperatik, igandeko orde, Meza Santua entzuteko. Beraz, erri artan Mezarik ba-zan, bertan entzutea erabaki gendun.

Bide zabaletik errira zeraman adarra artu ta abiatu giñan erri-aldera Imperial ubidearen gaiñeko zubira iristean, nekazari batekin topo egin genuen.

Gizagajo errentzat nonbait, etzegoen jairik, igandea izan arren, ta atxurra bizkarrean ta mandoa erremaletik zuela, lanera zijoan.

Nekazariak, gazte talde ura aurrez-aurre ikusi zunean, arriturik onela galdegin zigun: "¿Ande van estos mozos tan majos?".

Orduan —alako erantzunik itxaro gabe—, errian ta bereala Mezarik ote genduen, galdetu genion; eta erantzuna, mandako aren ostikada baten antzekoa izan genduen: "Misa icis, no hay hace años en nuestro pueblo, porque despachamos a toos los curas. Pa algo traímos la República y la Libertad".

No sea Ud. tan... —emen erramaletik zamakian aren izena aipatu gendun— eta erri aldera jarraitu, elkarri esaten geniola: "Asko ta askoren antzera, ba ote zekik gizagajo orrek, nola Errepublikala Libertadea zen diran".

Errira inguratuz gijoazela, elizako txintxiña entzun genduen. Mezatara deitzen zuela; ta emparantzara iritxi giñañean, eleiztarrak Eleiz barrura sartzen ari ziran. Beraz, garaizago etzegoen irixterik.

Eliz barnera sartu giñan bezain laixter, YON, Erretore jaunarengana joan zan, Meza Santua abesten utziko ote zigun, eskaera egitera.

Erretore jaunak oso ontzat artu zion eskeintza ura, ta baimena euki ondoren, korura igo, ta Corellan abesteko ikasia gendun Meza, Bedrola'ko eliztarrak entzun zuten.

Meza bukatu ondoren, eleiz atarira erten giñanerako, Apaiz Jauna an genduen zai. Eskerrak nola eman ta bere poza nola agertu etzekian. Ta bere atsegiñean esan zigunez, urteak zear, Pedrolako kristauek, ez ornen zuten alako Meza ederrik entzun.

"Berriz ere nai dezutenean etorri, beti ongi artuak izango zerate-ta". Onela-



ko agur biozkorra artu ondoren, txit alai, etortzeko genduen busari itxoitea itzuli giñan, bide zabalera.

Izan ere, Pedrola'ra uste-gabeko etorri bear onek, eliz-gizon zintzo ta apal bat, zorionez beteta jartzeko atsegiña eman zigun.

\*\* \* \*

Arrezkero, Naparroa'ko Erribera aldera, inguratu izandu naizan bakoitzean, Korella'ra azaldu giñan egun ezin-aztu ura gogoratzen zait.

Orduan YON azaltzen zait irudimenean. Txistua ezpañetan, eta mendiko soñu alaiak joaz, ttente, alboetara irriparez begira ta itxaroten zeudenak, arpegi alaiak agurtuaz, Alaxe izandu zan aren sarrera erri artan.

Sartu-aldi pozgarri onek, beste bat ain pozgarria izandu etzana, gogoratu izan dit. Alegia, PANPA'ko zelai azkengabe aietan, berrogeitaka urteak igaro ondoren, Pedro Fermin Izko'k bere jaioterriko plazara egin zun ageratu.

Naiera berdin-berdiña zuten, bien ala biek, irrika bizi batek eraginda zebiltzen. Barnean irakiten zeramaten eusko-gogoa, besteengana ixurtzeko leiaz.

Baiña, biak zituen asmo berdiñak, alderantziz gertatu ziran. YON zanari, beti erdeldun izandu zan erri batean, asko ongietorri ohea egin zioten, Pedro Fermin gizagajoari, euskera aaztu berna zuten bere erritarrak baiño.

Pedro Fermin'i —irudian baiño— zaarzaroan gertatuak ez du izenik. Gazte zala, jaioterrian bizirik utzi zituen euskera ta oiturak- berak txit urrutira joanaren maiteki gorde zituenak- arras galdu dituztela ikustean, jzer biotzondokoa, arena!:

Amets ikarakor bat bizitu balu bezelaxe, ain pozik etorri zan bidetik, oso naigabeturik itzultzen zaigu berriz ere Panpa'ko zabaldietara, biotzean sortu dioten zauria, miñ-etsi batekin eroanaz.

Ta txuntxunaren barrenean eraman bide zuen, —Kanpion aundiak dionez —bere animari erantsirik, Erraondo ta Iruñerri guziko euzko-gogoa.

YOÑ bitartean, berak zeukan iritzia egiztatu zala igarririk, indar-berriturik itzulj zan; euskal-giroa ain gogatsu onartu zutelako, leku artan.

Azkar gogoratu zan, erdeldun ziran lur aberats eta emankor aietan, erabat itzali gabe zegola eusko-txingarra, ta txingar au aizatu bear zala, berriro sua piztuko ba-zan.

Ta argi ta garbi ikusi zun, eusko-yakintzaren azia bertan eraiteko, jardun-bide aukerako ta egokiena, jaialdi jator oiek ugaltzea zala.

Pozaren-pozez eta arreta biziz, pesta eder ori ikusteko zai zeuden beste erri batzuetara joan-aldiak erandutzen asi zitzaigun.

Orduan bezela orain ere, tamalez, euskotarrok lengo lepotik daukagu burua, ta benetan mingarria dana, NAPARROA, euzkotarren gurasotako senide zarra, jaiotetxetik urruti aurkitzen da, bertan itzultzeko oztopo ta zaitasun latzak Inguratzen dutela.

Ta okerreana, gezurra aidatuaz, eta euren jatorriari uko egiñaz, arantza zorrotz-dun esi gogor bat, eratu digute anaion artean.

Egitan, senide ori etxerazi nai badegu, bide zuzen, zail eta egizkor bat-bakarra degu; anaikor, euskal giroa bertan zabaldu ta erakustea.

Ta ori zan YON'ek ibillian-ibillian iriki nai zun bidea, ta ez gogorrean eta indarkeriz urratua, gaur askok asmo duten bezela.



# EUSKEREAREN IZKIAK ETA IKURRAK (Abedea)

Guztiok izan doguz eragozpenak gure lenengo ikasketak egin doguzanean, abedearen ikurrak dirala-ta.

Gaztelereak orretan zailtasun aundiagoak dauz, euskereak baiño eta makiña bat ordu igaro doguz ikurrak noz eta zelan erabilli ikasten lenengo eta irakasten gero.

\*\* \*

Izan be, gaztelerearen ikurrak, latiñetik artutako jokabide batzuk dirala-ta, ez dagoz zentzunez aukeratuta. Gaztelarrak gorabera aundiak izan dabez euren izkuntzaren kondairan arazo au dala-ta.

Esaterako, "kendu" itzaren lenengo abotsa adierazteko, gaztelereak iru ikur daukaz: ca, co, cu; que; ka, ke, ki, ko, ku. Zergaitik ez bat aukeratu eta beti bera erabilli?

Gaztelereak naste aundi bat sortzen dau "v"gaz eta "b"gaz. Beti bat artuko ba'litz, ze ederto!

Antzera jazoten da ja, je, ji, jo, ju'gaz eta ge, gi'gaz. Abots bat adierazteko ikur bi dagoz or.

Eta zaillagoa izaten da "h" noiz erabilli bear dan jakitea. Batzutan latiña'ren gomutakia da: **facere/hacer**. Beste batutan latiñaren "h" bera da: **Habe-re/Haber**. Au erdi-aroko gaztelereak kendu egin eban: Habuit/ovo. Baiña gero jakintsuak barriro sartu eben.

Gaztelereak bere ortografia, idazkera, aldatu egin bear leuke, errezagoa biurtu eta onelan-edo idatzi: "Ai ke ber kuantos kieren eskribir bien i enkuentran dificultades ke no son imprescindibles".

Orrelako idazkera bat ikasi ezkeru, ez legoke iñoz zalantzarik.

\*\* \*

Baiña gatozen geure euskerara.

Gure izkuntzaren kondairan, aranatarren aldira arte, araugabekeri edo anarkia aundia geunkan. Ori diñoe Campion'en, Arana berak eta beste askok.

Sabin Arana'k alegin aundia egin eban arazo au bideratzeko. Ori ikusteko

naikoa da "300 urrezko orrialdek" osotzen daberen "Lecciones de ortografía del euskera bizkaino" irakurtea. Ez da au goitik bera ezarri nai dan zerbait, erriaren arazoa bideratzeko, eskintzen dan bide bat da.

Berak artzen dauan oiñarri-araua au da, labur-labur: Abots bakoitzak ikur bat (Eta ondoren lez, abots gabeko ikurrik ez).

Jokabide ori artuta, aspaldiko urteetan egindako bidea be kontuan dala, zentzunezko abede bat eskintzen dogu emen. Oraingoz ez geuk eta ez beste iñok oso-osoa berritzen ez dauan abede-bidea.

Olakoetan errez sortzen dira eztabaidak eta gertu gagoz besteen eritxiak entzuteko eta geureak aldatzeko, jokabide bardin batera eldu gaitzan.

Ona emen eskintzen doguzan ikurrak:

A - a	O - o
B-b(1)	P - p
D - d	R - r
E - e	RR-rr(8)
F-f(2)	S - s
G-g(3)	T - t
I - i	U - u
J - j (4)	X - x (9)
K-k(5)	Y-y(10)
L - l	Z - z
LI - ll	Tz - tz
M - m	Ts-ts(11)
N - n	Tx - tx
Ñ - ñ (7)	

GUZTIZ 27 DIRA

#### IÑOIZ ERABILLI-BEARREKOAK

D-d (12) (Gaiñean marra dala)

T-t (13) (Gaiñean marra dala)

H - h (14)

Ü - u (15)

#### OARRAK:

(1) Gaztelera "v" ez dau lekurik gure abedean.

(2) Euskaldun zarrak, gure aitita-amamak, ez eben "f" abozkatzen, baiña gaur asko sartu da eta bearrezkoa da euskal-itz batzuk idazteko: Fika, Fruiz eta olako toki-izen asko; baita erderatik datozen maillego-itz batzutarako: falta; iztegioko itz batzutarako: afaria.

(3) Beti aboskatu "gara" edo "gero" itzetan lez.

(4) Ikur au ez da beti bardin aboskatu, baiña erabagi bat artu-bearra dago eta auxe izan daiteke: Beti irakurri Jauna, Jesukristo eta olakoetan lez. Toki askotan aboskera au zabalagoa da: Jan, Joan, Jaku... aboskatzen eta idazten dabe. Olakoetan J idatzi.

(5) Ikur orretan batzen dira Karmel itzean lez oguzkatzen diranak.

(6) Egokiago litzale I marrapean idaztea baiña gaurko egokin edo ordena-gailluak ez dauke ikur ori. Gaiñera II- ren aurrean idazten dan i kendu-bearrekoa da, II-ren barruan doalako.

(7) Baiña itzean lez aurrean i ez da ipiñi bear, barruan doa-ta.

(8) Ez da gauza erreza itz-barruan eta konsonante-aurrean nai ostean noiz dan r eta noiz rr jakitea. Itzaren azkenean bokal bat jarriaz igarten da: zur: zura, ala zurra. Ur: Ura ala urra, baiña gurtu ala gurru da? Itzaren jatorria kontuan artu bear da eta beti ez da jakiten.

(9) Onek be i barruan daroa. Gaxoa, ez ez gaixoa.

(10) Aspaldion idazleen artean Y ikurra artzeko oiturea galdu egin da, baiña bearrezkoa dogu. J ikurra gaztelerazko jotak dauan ota agertzeko artu ezkerro (jaleo), ez daukagu ikurrik frantzerako j eta ge, gi agertzeko eta orretarako artu bear litzake Y. Jon idazten danean, Jauna'ren antzera irakurriko dogu, Yon idazten danean, barriz frantzetarren antzera. Toki batzutan jakin gaztelarren erara oguzten da eta orrelan irakurriko dogu. Orrelan oguzten dira itz asko Gernika-aldean eta Markiña-aldean eta abar, baiña beste toki askotan yakín entzuten dogu, esaterako Mungialdean, Arratia'n eta abar. Zelan oguztu alan odatz; bear litzake, baiña gitxienez zelan idatzi alan irakurri.

(11) z ta s, tza ta ts noiz eta zelan erabilli, orixe da bizkaitarren izkuntzak dauan eragozpen berezia. Onartu eta ikasi-bearreko gauzea da.

(12) D-d (marrea gaiñean dabela) sarritan erabilten dira, Bizkaia'n sarriago Gipuzkoa'n baiño, baiña gaurko idazkijñak eta egokin edo orenagailluak ez dauke ikur ori, zori txarrez, dd erabilli bearke da. Baiña ez aitzu aurrean ipinten i barruan daukela.

(13) Aurreko oarrea esandakoa bete emen be. tt idatzi bearke da.

(14) h ikurri; lparraldeko euskaldunak bear dabe. Erabilli begie.

(15) ü Zuberotarrak bear dabe ta erabilli begie.

\* \*

Alegindu gaitezcan zentzunezko abede-ikurrak artzen eta erabilten. Oiturearen idarragaitik-edo, asieran zail izango jakuz, ez geiegi, baiña gero idazteko, irakurteko eta euskera ikasteko ta erabilteko laguntza aundia izango dira.

OLAZAR'tar Martin'ek

# SOLOZABAL DAR PAULIN

Uztaillaren 1'an, Txorierriko bertsolari talde batek, omenaldi bat eskeiñi eutsa ainbat urtetan Mungian bizi izan dan Solozabal dar Paulin abadeari, Paulin bera bertsolari eta olerkari fiña dalako.

Paulin, Arrate inguruan jaio zan 1912'ko maiatzaren 4'an, Etxebarriko lurretan.

Egun orretarako agertuko zan liburu mardul baten, ARRAITZ izena dakarren liburuan aurkezpena egiten dauan Olazar dar Martin abadeak au diño:

Guztiok ezagutzen dogu Etxebarri ta Arrate bitartean dagoan Maxa mendia. Bertakoak ez diranak Kalamua esaten dautsoen mendia. Toki zoragarria da eta Paulin'ek maite dau toki ori, bera be Maxa'ren oiñetan dagoan Etxebarri'ko semea data ondo dago maitasuna ta esker ona agertzea.

Paulin'ek sarri abestu izan dautsa bere liburuan bere sortzeko etxe eta inguruari. Izen polita billatu dautso: Mendiguren. Nai eta sortu zan etxeak beste izen bat euki. Bear ba da jzen atsegin bat erabiltearren.

Nik dakidanez, azken irureun urtetan Etxebarrin ez da Mendiguren izendun baserririk egon.

Zegaitik berak izen orregaz deitu?

Danok dakigu poetak eder zale izaten dirala eta orrelako lizentziak, orrelako baimenak artzen dabezala.

Dana dala berak Mendiguren deitura atsegiñez dabil eta onelako bertsoak egin be baj.

Mendiguren, maite zaitut,  
nire odolaren sustraia,  
Mendiguren, maite zaitut  
sinismen sort iturria.

Ortxe, mendi aldatz gora  
ikusi neban Kurutza  
argi egiten ludira,  
eguzkiaren erara.

Beste kantaldi baten onelako au esango dau:

Egia zabaltzen doa  
Mendigurengo semea,  
aita-amak otoika dagoz  
indartuz egi bidea.

Ba dakizue zenbat olerki agertzen dauzan Paulin'ek bere liburu barri onetan? Seireun eta amasei olerki.

Ainbesteen artean ezin izan danak eder-ederrak edo ta bizi-biziak. Baiña ba dagoz uste baiño geiago, eder, txukun, eta gogotsu irakurten diranak.

Paulin ezagutzen dogunok ba dakigu olerkari ugaria dala. Edozein toki, edozein une, edozelako giro... danekaz baliatzen da. Lagun artean beragaz

egoten danak, gitxien uste dan une baten ikusiko dau lapitza artu eta paper-txo baten zerbait idazten. Origaiik bere olerki asko, laburrak dira, une bateko flash edo bat bateko argazki lakoak.

Oraingotan agertzen daben liburu onen aurretik, beste amabi argitaratuak daukaz Paulin'en.

Orrela 1960 urtean kaleratu eban lenena, Uskeriak izenagaz. Gero, urte bete geroago, beste bat, "Urre-bitsa" deiturakoa.

1969 urtean irugarrena, "Gizonetan" deitureagaz. Laugarrena 1972 urtean, "Gizadian" deituragaz. 1974'an bestea "Deika" izenduna. Gero 1977'n "Erri arnasa".

Oren ondoren !a amar urteko atsedena artu eban, zeatz esanda, bederatzirtertekoa, eta barrero asi beste liburuak agertzen.

Ala "Eder miñetan" 1986 urtean.

Urte bete geroago baten ordez liburu bi: "Aldatz gora" izenez bat eta "Aldatz makarretan ta Gernika erretan" izenekoak.

1991 urtean "Urrats" izenekoak eta 1993'en "Itza".

Eta orain "ARRAITZ".

Aurkezpena (presentasiñoia) egiten dautsanak onela diño: Solozabal dar Paulin olerkari ezagunak, liburu barri bat argitaratu dasku. Seireun eta amasei olerki dira. "Arraitz" liburuaren idazburua. Liburuaren asieran egiten dan deiak, garrantzi aundia eukiten dau. Gogoratu "Don Quijote"ren sarrera eta Milton'en "El Paraíso perdido"rena eta Orixe'ren "Euskaldunak" liburuarena. Gure Paulin Solozabal'ek, be asjerako deiari garrantzi aundia emoten dautso liburu onetan. Lau olerki artzen dauz orretarako eta oneik dira agertzen dauazan gaiak.

Gogoa makal eta nekea izkuntza menperatzen.

Goi argia barrenerako.

Beroa biotzerako.

Izadiari deia: biztu nire irudimena!

Laiñoa dator, barrua illundu naiez.

Zatoz indar argia, Parnaso bizitza gozatzeko.

Goiko itz zuria dator. Euskal itz-odolez buztiak bear dira.

Euskera izkuntza arrigarria, Euzkadiren apaingarria.

Sorterria ederra da!

Liburu onetan ba dago Paulin'en ezaugarri berezi bat. Gorostola edo gorostiari berari kantuak. Gorostola gogoan daukala, eguzkia, iturria eta makilla dira Paulin'en bertso gaiak. Zegaitik? Ba gogoan euki bear dogulako, Paulin'en bide zabalean ezbear bat euki ebalazpaldi, eta arrazkero e ren geratu zala eta makillaren bear izana eukiten duala. Eta berak beti erabilten dau gorostizko makilla bat. Eta gorostia gaitzat artuta txori kanta eta maitemindu kantak egin.

Ikusi, edo obeto entzun, Gorostiari bertso batzuk:

Gorostien gerizpean

arnas barria datorkit,

au pozaren zoramena

datorkidana zerutik.

Beste baten:

Ekaitz gogorak jo ditu  
etsaikeriz mendi ertzak,  
oiñeztu trumol zakarrak  
bildurtu dauz mendi gaiñak.

Zu, gorosti, tinko zagoz,  
erpa sendoz sustraituta  
gogoa dozu bizja  
eusko lurak indartuta.

Beste baten:

Dirdiraz dakust orleia  
oi gorostidi mañtia,  
zugaz ametsetan daukat  
nire zoramen guztia.

Nork egin zaitu ain eder...  
nun dago sure sormena?  
zu ain ederra zalarik  
zein da zure egillea?

Orleia dago zuregan  
orri kiskortu orretan,  
ta argia dabil isletan  
zidarrezko arratzetan,

Gure jardunaldi au amaitzeko, beste bat:

Gorostolaren zoriak  
zeru txiki bat dirudi,  
argiaz jantzita dago  
zeru ortzaren irudi.

Eguzkiaren izpiak  
zoratu dabe mendia,  
argitu da gorostola,  
urrezko aintzaz betia.

Aintza goian argiari,  
alntza gorostidiari,  
ederretan ederren dan  
gorosti makillari.

Orrelakoxeak dira, ikusten dozuenez, Paulin'en poesi txikiak. Biziak, argiak, maitetsuak eta batez be irudimen biziz egiñak.

\*

Paulin'ek omenaldi errikoia artu eban Mungia'n.

Berak ainbat urtetan egon izan dan eleiztarren aldetik eta euskal zale ugarrien aldetik. Izan be Paulin'en bizitzako elburu nausiak eleiz-bizitza eta euskal bizitza zan diralako.

Sei bertsolari be an egon ziran Paulin'eri kantuz. Eta erriko kultura elkarte-takoak eta agintariak opariak eskintzen eta erritarrak txaloka.

Paulin'ek, bere aldetik, kantuz agurtu eta eskartu eban erriak berezko dauan jatortasun eta zintzotasunez. Orrez gain bai esanak izate biurtu be erriari bere ARRAIZ liburu mardula doan banatu eta eskeiniatz.

Euskerazaintza'k be omenaldi onetan egon nai izan eban, illeroko batzarra Mungia'ko areto baten egin eta gero omenaldi jaietan alkartuaz.

Zubikarai tar Augustin

## Olerkari galduak

# PELI MARKIEGI, DESTERRUAN ILLA

## Markiegi Olazabal sendia

Gure gerratean ez ziran famili asko izango Sendi au baño gogorrago erabiliak.

Florentzio, Deba'ko alkatea, 39 urte, Dueso'n fusilatua 1937'garren Urri-lla'ren 15'ean;

Jose, Mondragoeko elizaren apaiz laguntzaillea, 1936'garren Urrillaren 30'ean Ernani'ko illerrian fusilatu, 40 urte zituela.

Eta azkenik Peli, gure olerkaria, desterruan illa, bere apaiz-eginbearrak Argentina'ko Bahia Blanca'n betetzen ari zala 1946'en, 40 urte ebazala.

Pedro Zelaia, eibartar apaiz ezaguna izan zan bere akolito Eibar'eko parrokian, Peli desterrura alden du baño len. Eta onen zenbait idazti arreri bialdu zioten, idazti aiekin lan bakar bat eratzeko asmotan. Baña, eriotzak epe zurrik ez duenez, ez zion astirik eman eta idazti aien azken-portua nun dagoan jakiñ ez.

Alaz ere, lau olerki aurkitu dituz bere illobak etxeko ganbaran.

Ona emen laurak: PELI berberak idatzien kopia zintzoak dira.

Anes Arrinda

## GABERDI

Gaberdi da. Ixiñaren  
azpian dana lo.  
Erekaren murmu a  
dantzut gozo-gozo.  
Izadi nekatuak  
inda ak askatu,  
ta luze-luze etzanda  
loak artu digu.  
Elizako ezkila  
bakañk da esna.  
Izadi-biotzaren  
taupada ote da?  
Gaberdiko ixilean  
u(ago det Yauna;  
afen, zure itzal ona  
edatu nigana.



# JAUNAREN OST BIGUNA

1  
Aize zo otzak txistu  
dagi leyoetan,  
euria goitik bera,  
dana ilunpean;  
mendi tontor zuriak  
dagusku aurean,  
baga ikaraga iak  
itxaso ase ean...  
Otza besterik ez da  
lu alde onetan.  
Zein ede a dan etxea  
negu gogo ean.

2  
Gure goiko Artzai onak  
mo oe bat nai du,  
aterik ate dabil,  
ezin du aurkitu.  
Zure artalderako  
mo oirik ez, Josu?  
Latsu egi txokoan  
atea jo eizu.

3  
Jaunaren ost biguna  
ez al nuan aitu,  
Latsu egi txokotik (bere  
etxea)  
nintzan, bai, aldendu.  
Orain ez daukat otzik;  
euzkiak erden du:  
Jaunaren ost bigunak  
otza du berotu.

4  
Ama Jaunak bi seme  
ezkatu dizkio:  
biak eman diozka;  
Berak se ordainduko?  
Ama, zeruko atea  
Berak zabalduko.

## "ZINTZO"

"Ator nere altzora;  
ator bai... orrela.  
Kontu jantzi barria  
zikindu, bestela...  
Geldi, esango juek  
asarre garela".

Zer esan gura deustak  
ainbeste ziñugaz?  
Zabal-zabal begiak  
nigan ipiñiaz,  
orrelaxe euki nai aut...  
entzun? Egongo az?

Ta alaxe zegokion,  
geldiro, begira:  
agin zuri, ezpain-beltz,  
begiak dirdira,  
arnas-otsaz batera  
emanaz pilpira.

"Ba-enki gizajo orrek,  
gaur zela nagoen!  
Ezeren pozik ez ta miñ-sorra kolkoan.  
Lagunak? Bat ez dagok  
lurbira osoan".

"Ez dakik? An, Matxari'n,  
erreka ertzean...  
Ez, ez deuat esango,  
gero jakitean  
amorrerik ez daikan  
sortu biotzean".

Ta adimendun bai-litza,  
gizajoak, ittuna,  
burua altzo gaiñera  
geldiro jetxi zun...  
Ta ark, bekoki erdian  
ixil-ixilik mun...

Ta ala gelditu ziran  
lagun biak pozik.  
Ta nion: "Zein ederki,  
bat abere izanik!  
Ta alkarrekin gizonak  
konpondu eziñik!".

Donibane Lohitzun, 19-VIII-37

# AMA ONAREN ABESTIA

Nega ez arkitu nun  
atari ertzean.  
Itz goxoz galde nion  
ea zer zukean,  
ta, ba uko oiñazea  
ezkuta naiean,  
"Ezer ez dut"  
"Ez, eze ez" zioan  
intziri artean.

Begi beltz aundi aiek  
baiña nik ikusiz,  
zerua iza ez antzo,  
gaiñez malko lodiz:  
"Maitaren bat il zaizu?"  
galde nion be iz.  
Ta ark begiratu nindun  
bi begiak diz-diz.

— "Sei lore eder nituan  
Jainkoak emanik;  
sei lore eder, nereak  
ez beste iñoranik.  
Ta atzo, gizotzar batzuk  
inda ez sarturik  
ostu egin zidaten  
bat loretogitik".

"Ostu eta eraman  
ez dakit nik nora;  
ta azken lu in gozoa  
edatur;jk gora,  
bere buru ede(a  
makurtuz kolkora,  
apal-apal yausi zan,  
gaixoa, zulora".

"Negar, ene begiok,  
negar ene biotz.  
Uda ta negu gaurtik  
neretza berdin otz...  
Maite zaitut, lore eder,  
naiz ta zauden ilotz.  
Nik berotuko zaitut  
atoz, lore, atoz!..."

Ta bi besoak zabal,  
begiak luzatuz,  
geldi-geldi ya i zan  
etortzen bai-lekus.  
Gero, etsiz be iro,  
malkoak golpatuz,  
nega ez ekin zion  
zotinka ta uluz.

Nik ere ezin nun geigo.  
Ezta ia lakar,  
biotza tanpa-tanpa,  
bi begiak baldar,  
aopez nastu nion:  
"Ez egin, ez, negar"  
Lore zenduna, gaurtik  
zeruan dezu izar..."

Ta malkoak garbituz  
alde egin nuen...  
Ta geroz arantz ura  
ba utik ezin ken...  
Ta, lapu ak oraindik  
andik bait-sebiltzen,  
loretegi ede a  
zaintzera yoan nintzen.

# BERBABARRI, IZPERRI = NEOLOGISMOAK

Liburu denda baten liburutxo zar bat billatu ta erosi neban oraintsu: Diccionario de Bolsillo Vasco-Español y Español-Vasco. R.M. de Azkue, "profesor de vascuence en el Instituto de 2.ª enseñanza de Bilbao". 15 x 10. Imprenta del Corazón de Jesús. Muelle de Marzana, 7. Bilbao, 1918.

Liburua zeñiñena izan zan argi dago. Ainbat orrialdetan dator bere beizena (firma): Fray Vicente Azqueta.

Barruan, 7-V-61'ko egunez idatzitako karta bat egoan. Oñate'n egiña. Oñate'ko Santa Ana'tik Aita Justo Anasagasti'ri Bidaurreta'ra bialdua.

Euskera galerazota egoan aldi aretan, Santa Ana'ko nobiziak euskeraz idazten ebela jakiteak, erakusten dau zerbait. Eskuz idatzia da. Ara:

"Gure Aita Justo agurgarria: Pakea ta Ona.

Itz bakar onetan bilduta bijoakio bere egun gogongarrian gure zorion zati tziki au, tzikia baño Ama Maistrakin baturik biotz osoz egindako bederatzizurren onetan Ama Birjiñak artuko al zitun gurre sakrifizio txiki auek.

"Zorionak" eta ezker ugari eta biozkorrenak bialtzen dizkiogu idaztitxo onen bidez, gure alde artzen dituan neke guztiak gatik.

Gure artean sarritan zoriontzeko zoria izan dezagula; auxe da gure asmorik onena, eta najmenik sutzuena.

Agur eta ondo igaro egun aundi au. No dudamos de que también el Reverendísimo Fátima le obsequiará con algún "puchero" aparteko.

Berriro "Zorionak".

Onetzi beza artalde erdi erren au.

Santa Anako Nobiziak."

Gauzak orrela goazen arira eta ikus daiguzan Azkue'k liburu onen azkenaldian agertzen dauzan berbabarri batzuk. Berak izperri diño eta neologismoa dala jakin eragin. (Vocablos vascos (nuevos en su mayoría) no incluidos en la primera parte de esta obrita.

Berbabarrien edo berbabarritzat daukazan guztien aitatasunik ez dau zeaztuten Azkue'k.

Bai batzuk:

Arrue (Arr.)

Arana Goiri (A.G.)

Añibarro (Añ)

Broussain (Brous)

Duvoisin (Duv)

Harriet (Harriet)

Larramendi (Larr.)

Oihenart (Oih)

Olaetxea (O1)

Pouvreau Sylvain (S.P.)

Azal azaletik ager daiguzan bakoitzaren euskal edo euskera gaizko lan batzuk.

Arrue Gregorio. (Gregorio Arruebarrena)

Ernani'n jaioa (1811-B-22) eta Zarautz'en il 1890'n.

"Brabanteko Jenobeba". 1858 inguruan idatzia.

Arana Goiri, Sabino.

1865'n Abando'n jaioa.

Lanak: Lenengo egutegi bizkaitarra. Ixendegia. Etimologi lanak. Ortografi azalpenak. Abizenak, eta abar.

Sukarrieta'n il zan 1903 urteko Azilla'ren 25'an.

Añibarro, Pedro Antonio.

1748 urtean Areatza'n jaio eta 1830'n Zarautz'en

Astete'ren dotriña baten itzulpena: "Cristau Doctriña ceñetan eracusten baitire gurer Fede Santuco gauzeric bearrenac". 1802-3 bitartean Iruña'n argitaratua.

Beste liburu batzuk: "Escu liburua eta berean Eguneango Cristiñau creguiñac.

Eta besteen artean Misjonad eucalduna, Cristinau dotrina ta Sermoiac Bizcaï errietan iracasten.– Lau Evangelioac batera alcarturic.

Brousaïn, Pierre.

Asparne'n jaio, 1869-IX-3'ean.

Bertako alkate izan zan eta lurraldeko kontseilari.

Campion'egaz bateaz Euskaltzaindirako lan bat gertu eban, 1920-n agertua.

Orthez'en il zan 1926 urtean.

Duvoisin, Jean Pierre. "Gazteluberry".

1810 urtean Ainhoa'n jaio. Aduanetako kontulari. 1891'ko urtarrillaren 30-n il zan Ziburu'n edo Ezpeleta'n.

1858--n "Laberatzako liburua" argitaratu eban eta bi aita-semeren solasak laborantzaren gainean.

Kardaberaz'en liburu bat laburdierara biurtu eban.

Bai ta "Bible edo Testament zahar eta Berria Duvoisin kapitainak latinezko Bulgatatik leenbiziko aldizko Laphurdiko eskarara itzulia". Luis Luziano Printzeak argitara emana.

Harriet, Martin.

1714 urte ingurukoa da.

1741'n "Gramatica escuaraz eta francesez" kaleratu eban.

Lau lan zitula esaten da, baiña laugarrena besterik ez da ezagutzen.

Larramendi, Manuel.

Jesulaguna. 1690'n Andoain'en jaio eta 1766'en Loiola'n

Bere lanak: "El imposible vencido". "Aste de la lengua Bascongada". (1729).

"Diccionario trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín".

"De la antigüedad y Universalidad del Bascuence en España".

"Corografía de Guipúzcoa" eta abar.

Oihenart, Arnald.

1592-en jaio, Maule'n, abustuaren 7'an. 1675 urte inguruan il zan.

Lege gizona.

Bere lanak: "Notitiae utriusque Vasconise tum Ibericae tum Aquitanicae", 1638 urtean Paris'en agertua.

"Osten Gastarea neurthitzetan". Paris, 1657.

"L'Art Poetique". 1665.

Ezagunak baita bere esaera zarrak.

### **Olaetxea, Bartholome.**

Laukariz'eko abade izana.

1775'n "Cristinauben dotrina" idatzi eban.

Urkijo'k zalantzan ipinten dau "Eriotza" deiturako liburua idatzi ete eban.

Dirudianez "Eriotcea" atal baten izenburu lez ezagutze da bere lanetan.

"Celango bicitcea alango eriotcea". Ortik sortua da zalantza.

### **Pouvreau, Sylvain. S.P.**

Bourgues-en jaioa. J. Duvergier'egaz batera ikasi eban euskera.

1640-1644 urtetan Bidart'en egon zan abade.

Bere lanak: Guiristionoaren Dotrina, Richeliu'en dotrinatik euskeratua eta Philothea, Sales'ko Prantzisko deunaren liburuaren euskeratzea. Deitura au da: "San Frances de Sales Genecaco Ipizpicuareb Philothaea eta Chapeletaren Andre Dena Mariaren ohoretan devocionerequin erraiteco. Paris, 1664".

"GudU Espirituala", Scupoli italiarraren "Combattimendo spirituale" euskerako itzulpena.

Eskuz idatzitakoen artean "Euscal frantzetar iztegia, eta 1663 urtean idatzitako geigarri batzuk.

\*\*\*

Ara liburutxoaren lenengo geigarrian Azkuek berbabarritzat agertzen dauzan berbak, itzak.

A	ALATZ.— Milagro.
ABARRIGANDE.— Domingo de Ramos.	ALDUN.— Diputado.
ABELDI. (Arr.).— Fauna.	ANDERUREN.— Heroína.
ABELUZU.— Fiera.	ANTZERTI. (Arr.).— Teatro. (arte).
ABERRI. (A.G.).— Patria.	ANTZIKUR.— Espejo.
ADIBIDE.— Ejemplo. (lección).	ANTZOKI. (A.G.).— Teatro (Edificio).
ADITZ.— Verbo.	AOLKATU. (Harriet).— Inspirar.
AGADI.— Emparrado.	AOLKU.— Inspiración.
AGERPIDE.— Expresión.	ARAUDI.— Reglamento.
AGERTOKI.— Escenario.	ARLATA.— Losa.
AINTSIRA.— Laguna.	ARPIDE. (Arr.).— Suscripción.
AIÑTZA. (A.G.).— Gloria.	ARPIDEDUN. (Arr.).— Suscriptor.
AIZEKURUTZE.— Corriente de agua.	ARRENTZA. (Arr.).— Letanía.
AIZORRATZ.— Veleta.	ARRIRASKU.— Litografía.
AIZOYAL.— Vela, pieza de lona para los buques.	ARRIRASLE.— Litógrafo.
AIZUNBUL. (Urr.).— Ventilador, turbina para aire.	ARRIRATSI.— Litografiar.
ALAIZPA.— Gemelos. Botones de puños.	ARROTZAIN.— Posadero.
	ARROZKU.— Mesón, posada.
	ARROZKURATU.— Hospedar, se.
	ARROSKUZAIN.— Mesonero.
	ARROZ I EGI.— Fonda.

ARTATZ.— Recibo.  
ARTEKARI.— Interventor.  
ARTEZKARI. (A.G.).— Director.  
ARTITZ. (Oih?).— Inscripción.  
ARTZEÑO.— Abanico.  
ASKAITZ.— Disnea.  
ASKARI.— Confesor.  
ASMAGIRI.— Patente.  
AURRESAKIZUN.— Profecía.  
AURRESALE.— Profeta.  
AURRESAN.— Predecir.  
AURRIKUSI.— Prever.  
AUTAGU.— Locutorio.  
AUTESPEN.— Elección, acto de elegir.  
AUTITZ.— Voto, sufragio.  
AUTIZKETA.— Votación.  
AUZOTU.— Empadronarse.  
AYERGA.— Indiferente.  
AYERGATASUN.— Indiferencia.  
AZKESPEN. (A.G.).— Perdón.  
AZKETSI. (A.G.).— Absolver, perdonar.  
AZPEN.— Olvido.  
AZPIARI.— Contrabando.  
AZTIZARI.— Romana.  
AZTU.— Señalar.

## B

BAIKUNTZA.— Hipoteca.  
BAIKUNTZARI.— Hipotecario.  
BAITEGIRATU.— Encarcelar.  
BAKALDUN. (A.G.).— Rey.  
BAKAULKI. (A.G.).— Solío.  
BARATALAGIRI.— Acta notarial.  
BAREZTI. (OI).— Azúcar.  
BASELIZA.— Ermita.  
BATZOKI. (A.G.).— Sociedad, círculo de reunión.  
BEIZEN.— Firma, nombre puesto al pie de un escrito.  
BELAUNDI.— Genealogía, árbol genealógico.  
BELAUNUGAL.— Tirapié.  
BERRINARRI.— Periódico.  
BIDALETSE.— Correo, casa de la correspondencia.  
BIDALGO.— Correo, servicio público para el transporte de la correspondencia.

BIDALZAIN.— Correo, repartidor de la correspondencia.  
BIRDASKIN.— Copia.  
BIDATU.— Equipaje.  
BIDEKATU.— Descarrilarse.  
BIGURRIPEN.— Perversión.  
BILAKETA.— Exploración.  
BILAKETARI.— Explorador.  
BILKETA. (Dur).— Recaudación.  
BIPOZKATU.— Descorchar.  
BIRDATSI.— Copiar.  
BIRRAUTATU.— Reelegir.  
BIRREREGI.— Reedificar.  
BIRSALDU.— Revender.  
BIZARRAIZTO.— Navaja de afeitar.  
BUREZTUN. (A.G.).— Corona.  
BURNORRI.— Plancha.  
BURUERIO.— Suicidio.  
BURUNTZIA EZARRI.— Coronar.  
BURUNTZIALDI.— Coronación.  
BURUREN.— Genio, talento extraordinario.

## C

DAMULAN.— Penitencia, pena impuesta por el confesor.  
DOATZ.— Sacramento.  
DOMUIDE.— Equivalente.  
DURUÑDIZTI.— Música.  
DURUNLARI.— Músico.

## E

EDASKERA.— Elocución.  
EDATONTZI.— Vaso.  
EDIROKI.— Índice de un libro.  
EDONTZI.— Copa.  
EGARSARI.— Usura.  
EGUANTZ.— Alba.  
EGULEN.— Víspera.  
EGURASTEGI.— Paseo, lugar para pasear.  
EGURAZTI.— Barómetro, lit. "Adivino de la atmósfera".  
ELANTZE.— Elocuencia.  
ELATZ.— Tipos de imprenta.  
ELAZKETA.— Impresión, trabajo de imprimir.  
ELAZKI.— Impreso, cosa impresa.  
ELAZKIN.— Ejemplar, escrito reproducido.

ELAZKITU.- Imprimir.  
ELAZTARI.- Tipógrafo, impresor.  
ELAZTEGI. (Brous).- Imprenta.  
ELEKATU.- Predicar.  
ELEKETA.- Predicación.  
ELEKETARI.- Predicador.  
ELEIZAIN.- Sacristán.  
ELIZETSAI.- Impío.  
ELIZETSAIGO.- Impiedad.  
ELIZGELA.- Sacristía.  
ELIZMENDE.- Diócesis.  
ELIZMENDEKO.- Diocesano.  
ELGU.- Hospital.  
EMAKI.- Femenino.  
ENDERRI. (Arr.).- Nación.  
EPAIKETA.- Juicio, examen p. ej. de un reo.  
EPAILARI.- Juez.  
ERAKUSKETA.- Exposición, de arte, etc.  
ERAKUSTAPAL.- Escaparate.  
ERARRI.- Acomodar.  
EREZERTI. (A.G.).- Poesía.  
ERIOKI.- Fluido.  
ERLOKETA.- Lotería.  
EROSLADI.- Parroquia. (clientela).  
ERRALTSOR.- Hacienda, erario pútilico.  
ESKESARI.- Limosna.  
ESKURATU.- Gesticular.  
ESKUTUR.- Manual. (libro).  
ESTALIZKETA.- Correspondencia.  
ETSELABE.- Estufa.  
EULAZTI.- Pluviómetro.  
EUSLE.- Suscriptor.  
EUSLETU.- Suscribirse.  
EYOGAITZ.- Dispepsia.  
EZAZTI.- Higrómetro.  
EZBAIKOR.- Escéptico.  
EZKEUÑ.- Hule.  
EZKONTZERESI.- Epitalamio.  
EZTANDAILU.- Explosivo.

## G

GAIZKATU. (A.G.).- Salvar.  
GANTZUMEN. (Duve).- Unción.  
GARAZKETA.- Industria, operación para desarrollar negocios.  
GARAZKETARI.- Industrial.  
GARBITOKI.- Purgatorio.

GATZOZPIN.- Ensalada.  
GEBENZARO.- Epoca de la veda.  
GERAKI.- Sólido (como sustantivo).  
GEZURTZAKO.- Inverosímil.  
GIARRO.- Flemón.  
GIZAGIN.- Filántropo.  
GIZAGINTZE.- Filantropía.  
GIZALERRO.- Jerarquía.  
GIZUREN.- Héroe.  
GIZURENTASUN.- Heroísmo.  
GOGAIKO.- Concordia.  
GOMENKARI.- Servidor.  
GORRAZTI.- Termómetro.  
GOYARGI.- Inspiración.  
GOZORE.- Pastel.  
GUDAKUNTZA.- Milicia.  
GUDALETSE.- Cuartel.  
GUDALOTZE.- Ejército.  
GUDAMARRU.- Estratagema.  
GUDONTZIDI. (Arr.).- Escuadra. Conjunto de buques.  
GURNI. (01).- Acero.

IDASKI.- Escrito. (documento).  
iDASKILARI.- Escritor.  
IDASKU.- Escritorio.  
IDASPEN.- Escritura, acto de escribir.  
IDATSI.- Escribir.  
IGARKIZUN.- Acertijo.  
IGERETSE.- Balneario marino, casa de natación.  
iKASGU.- Escuela.  
IKATZUREN.- Diamante.  
IKURRIN. (A.G.).- Bandera.  
IKUZMAI.- Lavador de gabinete.  
ILAZTI.- Nigromante.  
ILAZTIKETA.- Nigromancia.  
IÑARKI.- Papel.  
IÑOSKI.- Líquido.  
IRAKASLEME.- Maestra.  
IRAKURBURU.- Epígrafe.  
IRARKI.- Grabado.  
IRARLE.- Grabador.  
IRARRI.- Grabar.  
IRASI. (Arr).- Fundar.  
IRATZARGAILU.- Despertador.  
IRAZAN.- Crear.  
IRLARI.- Danzante.

ITEGUN.— Fecha.  
ITSASALDI.— Marea.  
ITSASKETA.— Navegación.  
ITSASLAPUR.— Pirata.  
ITSASMIN.— Mareo.  
ITSASMINDU.— Marearse en el mar.  
ITZAURRE. (Larr).— Prólogo.  
ITZOZTE.— Epílogo.  
ITZUR. (01).— Sentencia. (apoteagma).  
ITZURARAZI. (Duv).— Salvar.  
IZARGI. (Arr).— Faro.  
IZENDI.— Lista.  
IZEZTI.— Navegante.  
IZKELDI. (A.G.).— Dialecto.  
IZKELZAIN.— Académico de la lengua.  
IZKIN. (A.G.).— Sílabas.  
IZKURA. (Arr).— Flujo del mar.  
IZPERRI.— Neologismo.

#### J

JAIKIÑ.— Festejo.  
JAREIPEN.— Dimisión.  
JARRIALDI.— Sesión.  
JATETSE.— Restaurante.  
JAUNARGU.— Comulgatorio.  
JAUNARTU.— Comulgar.  
JAUNARTZE.— Comunió.  
JAURESPIDE.— Religión.  
JAURESTEGI.— Santuario.  
JOARE.— Instrumento músico.

#### K

KEBURDI. (Brous).— Locomotora.  
KUSELARI.— Emisario.  
KUZTORATU Jabonar.  
KUZTORE.— Jabón.

#### L

LANDERGU.— Hospicio.  
LANGAILU.— Máquina, trebejo.  
LANGELA.— Oficina privada, despacho, gabinete.  
LANSARI.— Jornal.  
LATSAIZE.— Viento terral.  
LAUKOTSO.— Cuarteto.  
LAURLEKO. (A.G.).— Peseta.  
LEGORRADAR.— Istmo.  
LEKABE.— Anarquista.  
LEKABETASUN.— Anarquía.

LEKAIDE. (A.G.).— Fraile.  
LEKAIME. (A.G.).— Monja.  
LEKARO.— Convento.  
LERDAMIÑ.— Acíbar.  
LETERRI.— Estado, cuerpo político de una nación.  
LETERTZAIN.— Ministro.  
LETERTZAINGO.— Gobierno, conjunto de ministros.  
LORPIDE.— Ladrillo.  
LUGERLAU.— Ladrillo.  
LUMAIZTO.— Cortaplumas.  
LURBINDU.— Destilar, extraer el jugo de líquidos.

#### M

MAIZKATU.— Repetir.  
MARGOLARI.— Pintor.  
MOLO.— Bala.  
MOLOKADA.— Balazo.  
MUSTAR.— Bigote.

#### N

NEKAZKA. (Arr).— Indulgencia.  
NEURTITZ. (Larr).— Verso.

#### O

OPAKUNTZA.— Ofrenda, oblación.  
OPABARRI.— Ara.  
OPALDI.— Ofertorio.  
OPALMAI.— Altar.  
ORRAZKERA.— Peinado.  
ORRAZTEUN.— Peinador (toalla).  
ORRIALDE.— Página.  
ORTZIRI.— Mondadientes.  
OSAGUNE.— Perfección.  
OSKORO.— Firmamento.  
OSPURU.— Empíreo.  
OSTAGI.— Meteoro.  
OSTARI.— Maná.  
OTOIZKU.— Oratorio.  
OYUKATU.— Cantar.  
OYUKI.— Canción.  
OZKIN.— Dentista.  
OZTUGARTE. (Larr).— Península.

#### P

PIZKUNDE. (A.G.).— Regeneración, resurrección.



**S**

SAKELAIZTO.- Navaja.  
 SATANDI.- Rata.  
 SENDAILU.- Medicamento.  
 SENDI. (A.G.).- Familia.  
 SOINKETA.- Gimnasia.  
 SONGORTU. (Añ).- Extasiarse.  
 SORKIDE.- Homogéneo.  
 SULEIZEKO.- Infernal.  
 SUN.- Foco.

**T**

TAKADA.- Punto (en ortografía).  
 TAPOTZIRI.- Sacacorchos.  
 TAYAKETA.- Dibujo.  
 TIRRIN.- Timbre eléctrico.

**TS**

TSALOGARRI.- Plausible.  
 TSEGU.- Museo.  
 TSILORGIN.- Hojalatero.

TSILORRI.- Hojalata.  
 TSIMISTARGI.- Luz eléctrica.  
 TSIMISTORRATZ.- Pararrayos.  
 TSOKOR. (Arr).- Cigarro (puro).

**U**

UGASARI.- Glete.  
 UGAZTUN. (A.G.).- Mamífero.  
 URIGUIN.- Hidrofobia.  
 URKETA.- Fundición.  
 UZI.- Ambición.

**Z**

ZEAPEN.- Descripción.  
 ZEATU.- Describir.  
 ZENBAKI. (KG.).- Ejemplar, por ejemplo de un periódico.  
 ZENTZARAZLE. (Duv).- Corrector.  
 ZINUKETA.- Pantomima.  
 ZIRI-OTOITZ.- Jaculatoria.  
 ZUTOYAL.- Estandarte.

Gorago irakurri al izan diran berben gain, Azkue'ren laneko lenengo zatian, ba datoz beste ainbat, barriztat ebatzita.

Atal berezian esandako berbabarri (izperri) agertuarren, bere iztegiko lenengo zatian, Vocabulario Vasco Español'en aurkitu leikez len agertutako batzuk. Ez doguz barriro aipatuko. Bai atal onetan agertu oraiñarte gogoratu ez diranak.

Ara:

AGERKIDE.- personaje de escena.  
 AGERRALDI.- escena, presencia.  
 AGERTOYAL.- telón.  
 ARIZTILE.- algodón.  
 ARREUN.- seda, lit. lienzo de gusanos.  
 ARTEKI.- episodio.  
 BARUTE.- cuaresma, temporada de ayuno.  
 BELAUNALKI.- reclinatorio.  
 EDOÑTZI.- vaso.  
 ELIZGELARI.- sacristán.  
 F7TEGI.- enfermería.  
 EUSPEN.- suscripción.  
 EZKUTAPEN.- misterio.  
 GARAZKIDE.- accionista.  
 GAU-MAI.- mesa de noche.  
 GELUNE.- estación.  
 GERTALISKI.- anécdota.  
 GIZAURREKO.- guía.  
 GOTZAIN. (A.G.).- Obispo.

INTAGARRI. (Olab).— arroz, lit. trigo de pantano.  
ITUNLARI.— consejero.  
IZADI.— naturaleza.  
OPORKETA.— huelga.  
ORGADI.— tren. Lit. conjunto de vagones.  
OYUKI.— canción.  
OYULARI.— cantor.  
OYU EGIN.— cantar.  
OYUTEGI.— coro.  
SORTALDE.— Oriente.  
SUTAUTS.— pólvora.  
ZALKURDI.— coche.

¶ Eta Iztegi berbertako bigarren zatian, Vocabulario Español Vasco dalakoan barriztat izentatzen diran beste oneik:

Aceite.— GAIMEL.  
Acto de una pieza de teatro.— ATAL.  
Ara.— OPALARRI.  
Arcipreste.— BETERBURU.  
Arteria.— ZANGAITZ.  
Brea.— LERDOKI.  
Cañón.— ZUPIÑ.  
Corresponsal.— IZPERKARI, es inadmisibile, como lo es IZPER.— noticia, diño Azkuek.  
Episodio.— ARTEKI.  
Divorcio.— EZKONTZAUSTE. (Arr).  
Escobilla.— ERRASKO.  
Escritor.— IRASKILARI.  
Familia.— SENDI. Onetan Azkue'k zorrotz erabilten dau luma. Diño: "Parece no ser aplicable al caso la teoría de sentido común, de que habiendo vocablos populares no deben aceptarse neologismos".  
Istmo.— LURMIN. (Arr). Literalmente lengua de tierra.  
Papel.— INGI. (A.G.). Azkue'k bere aldetik: La formación de este neologismo, elaborado de eun "lienzo" (por semejanza de corteza de árboles y del subfijo -ki es incorrecta, 1.º por el mal uso de in por eun; 2.º por el abuso de gi por -ki. Azkue'ren ustez orretarako ba egozan beste izen egokiago batzuk, esateko albar, i<sup>P</sup>ar, kukutsa, pikar, zana, zurgizin, eta beretzat ego-kien inarki izan eitean.  
Parroquia (clientela).— EROSLADI.  
Puerto.— IZKATE, lit. puerto de mar.  
Ikusi daitekenez berbabarrien artean ba dira ondo jausi ta ondo sartuak, gaur erriak ugari darabillazanak.  
Beste batzuk ez ainbeste. Eta zer esanik ez, ba dira ezagutzeko aiña be erabiliko ez diranak.  
Izkuntzen legea da. Gauzea, itz barriak billatu bearrekoetan, esan naia erraz eta jator agertu eta erakutsiko dabenak lortzea da.

Zubikarai tar Augustin

# ESAERAK

- 1.- Leengo zaarren esaerak, guztiak jazoerak.
- 2.- Orrek lengo lepotik dauko burua.
- 3.- Leenik jan, gero lan.
- 4.- Norberak ez dau bere makarrik ikusten.
- 5.- Zu aundi ta ni aundi, nork guri aparia ipiñi?
- 6.- Zure etsairik aundiena, zeure burua lenena.
- 7.- Ikasi bear badok, zurra izan bearko dok.
- 8.- Itxaso guztiak igaro eta bazterrean ito.
- 9.- Zalditik astora eta astotik lurrera.
- 10.- Ez gaitu oitura batek egiten Jaunaren gogoko.
- 11.- izango dau berea biarko egunak.
- 12.- Ez dau diruak egiten gizona.
- 13.- Gaiztoak berarekin gaiztakeria.
- 14.- Geiago eukiago ta naiago.
- 15.- Geu garan artean gure mundua.
- 16.- Jango badok bearra egin bearko dok.
- 17.- Itsuak ikusgura, errenak ibilgura, gorra entzungura.
- 18.- Itzak ederrago egiñak baño.
- 19.- Lur gitxi aldatz barik.
- 20.- Luzaro nai badozu bizi, gaztarotik zartzen ikasi.
- 21.- Nagiak erre egin ei eban erria.
- 22.- Neu nagusi eta musturak ausi.
- 23.- Gizon buru apala igandik urrun doala.
- 24.- Gizonak gizona nekez ezautzen oi dau.
- 25.- Lan egiteko mutiko, jateko gizonko.
- 26.- Zelako egurra, alako sua.
- 27.- Aldatzgoreak badau aldatzberea.
- 28.- Amar urte ez dira bear amar gauza ikasteko.
- 29.- Arpegiak arpegia austen dau.
- 30.- Askok dakiz zaarrak erakutsi bearrak.
- 31.- Askoren miña, zoroen atsegiña.
- 32.- Arri batek berak ez dau orma egiten.
- 33.- Gaiñean eder, barruan lander.
- 34.- Emona bat, artua bi, emonak galdua dirudi.
- 35.- Maite zaitut, baño azaletik; ikusi nai zaitut, baño urrundik.
- 36.- Mendiak mendjaren bearrik ez; baño gizonak gizonarena bai.
- 37.- Lotsa bagentzat mundua; irabazten dabenentzat zerua.
- 38.- Jokoak adarrak makur.
- 39.- Guztiak gura izatea, guztia galdutea.
- 40.- Gogoak dan tokian aldaparik ez.
- 41.- Gitxiagia ta larregia, beti kaltegarria.
- 42.- Etxeko sua, etxeko autsaz estali bear da.

# ESALDI JATORRAK

- Azkar etorri zera...
- Bai! Plazaraño JUN BESTERIK EZ NUN DA...
- Zer modu, Joxe?
- ONDO-ONDO EZ, baña OR-NUNBAIT, AINBESTEAÑ!
- Ezin-eramanaren ezin-eramanez dabil.
- ALA OLAKO gizona da!                   \*\*\*
- EBAKI GAIZTO egin dituzte!           \*\*\*
- Gau-illunean joan zan.                   \* \* \*
- AUNDITU ALEAN indartuko da.       \*\*\*
- POZAREN-POZEZ.                         \*\*\*
- Ixíl-mixilka aritu ziran.               \*\*\*
- Noizik beinka bakarrik etortzen da.
- Beti AITZAKI-MAITZAKI dabillena da.
- ÑOLAZPAIT ERE egingo al dagu... \* \* \*
- Berrogeitarren bat urte izango ditu ALDE-ALDE.
- EGI-ITXURAK LIOKENEZ, ikitua izango zan.
- Ez zan zaldun MAIÑONTZI oyetakoa.
- Irakurriz pasatzen zitzaizkion gauak ARGIRIK ARGÍ ta egunak ILLUÑIK  
ILLUN.   \*\*\*
- ASE TA BETE egin giñan.               \* \* \*
- ZAKAR-ipurdia izan arren, gizon ona zan.
- BERE-URAXE AÑAKOAK ez zirala irjditu zitzayon.
- ORAIN AURRETIK eskale bat zan; orain aberastua dago.
- Lanik gabe, GEYENBAT urte guzian egon oi da.

Oñatibia'tar Manu'k jasotakoak  
Zarautz, 1995'ko lorailaren 20'ean